

Sustainable growth

In advanced manufacturing

2023

Jasangarritasun
memoria



 **DANOBATGROUP**



Makina-erremintan erreferentea gara, eta jasangarritasunean ere erreferente izateko egiten dugu aurrera, **planetarentzat, gizartearentzat eta pertsonentzat onena** nahi dugulako, gure jardueran gabiltzan bitartean.

Argi daukagu, gure izateko modua bakarra da; horrek bidea markatu digu, eta, orain, zurekin partekatu nahi dugu. **Ezagutu Danobatgroupen esentzia jasagarria, ezagutu bere jasangarritasun memoria.**

Sustainable growth

In advanced manufacturing

2023

Jasangarritasun memoria ←

Aurkibidea

01
Presidentearen eta zuzendari nagusiaren gutuna
04. or.



02
Ikuspegia, konpromisoak eta ekintza nabarmenak
05. or.



03
Danobatgroupi buruz
07. or.



04
Kudeaketa eredu etiko, solidario eta parte hartzailea
17. or.



05
Pertsonetikiko konpromisoa
27. or.



06
Klimarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa
45. or.



07
Ingurunearen garapen jasagarriarekiko konpromisoa
59. or.



08
Kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza
66. or.



09
Gai materialak identifikatzeko prozesua
74. or.



10
Eranskinak
81. or.



Presidentearen eta zuzendari nagusiaren gutuna

Kudeaketa jasangarriagorantz aurrera egitea, fabrikazio aurreratuan liderrak izanda. Hori zen 2021ean, Taldearen egungo Plan Estrategikoarekin, markatu genuen erronka. Hiru urte geroago, harro baieztatu dezakegu jasangarritasuna dagoeneko elementu transbertsala eta funtsezkoa dela Danobatgroupen jardueran.

Kontua ez da autokonplazentzian erortzea, iraupen lasterketa bat delako eta oraindik bide luzea dugulako egiteko, baina egia da markatutako erronkak bete ditugula eta asko aurreratu dugula hazkunde jasangarriarentz, ASG irizpideek gidatuta (Ingurumenekoak, Sozialak eta Gobernu Onekoak).

Ingurumenaren alorrean, azpimarratzekoak dira iturri ez-berriztagarrien kontsumoa murrizteko 2023an egindako aurrerapenak eta kontsumitzen dugun energiaren heren bat autokontsumoaren bidez kontsumitzeko eta energia berriztagarri propioa sortzeko egindakoak. Beste neurri batzuen artean, gure lantegietako estalki gehiagotan plaka fotovoltaikoak jartzen jarraitu dugu, eta jada 4.160 panel fotovoltaiko ditugu instalatuta. Horiekin, kontsumitzen dugun energiaren %20 iturri horretatik kontsumitzen dugu. Horrez gain, milioi 1 euro baino gehiago inbertitu ditugu kanpoaldean eguzki baratze bat jartzeko, zeina aurreikuspenen arabera 2025ean abian jarriko baita.

Nabarmen aurrera egiten ari gara, halaber, deskarbonizaziorako plan bat sortzen etorkizunerako, gure taldeko kooperatiba gehienek 2023an egindako karbono aztarnaren hiru irismenen neurketaren babespean. Anlisi hori funtsezkoa da

gure ekintza plana epe luzera efektiboa eta zehatza izango dela bermatzeko.

Produktuen ingurumen inpaktuari buruzko eremuan, azpimarratzekoa da 2023an Soraluze makinen 4 modelo berrik eskuratu dutela Ekodiseinuko ziurtagiria.

Gainera, 2023an Danobatgroupen Mugikortasun Planak lehen ekintza gauzatu zuen: langileen artean auto partekatua erabilera bultzatzeko eta areagotzeko aplikazio bat sortzea, langileek eragiten duten inpaktua txikitzeko.

Arlo sozialean, azken Plan Estrategikoan kalitatezko enplegua sortzeko jarritako helburuak bete dira, eta Danobatgroupek trebakuntza handiko gero eta profesional gehiago ditu urtetik urtera, eta jada 1.462 laguneko plantilla du mundu osoan.

Era berean, oraindik ere gure kudeaketa kooperatiboko ereduarekin ari gara lanean, zeina Mondragon Korporazioaren esparruan eredu etiko, solidario eta parte hartzailea baita. Ere horretan, 2023an Legeak Betetzeko Prozeduran neurri berriak sartu ditugu, eta ASG eremuetako hiru politika berri sortu eta onartu dira: Jasangarritasun politika, ekintza sozialeko politika eta aniztasun eta berdintasuneko politika.

Halaber, interkooperazioko proiektuak bultzatzen jarraitu dugu beste enpresa eta talde batzuekin, interkooperazioa baita Mondragonen barruko kooperatiben ezaugarri bereizgarria. Horietako batzuk dira Fagor Arrasaterekin duguna, Blanking teknologian aritzeko, edo Ategirekin duguna, eguzki baratzean elkarrekin inbertitzeko.

Danobatgroupek jasangarritasunarekin duen konpromisoa antolaketatik harago doa, eta gizarte osora zabaltzen da. Hiru urtean 1,5 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin zaie izaera sozialeko ekimenei, 200 erakunde baino gehiagori. Era berean, taldeak Elkarrekin Eragin programa parte hartzailea garatzen jarraitzen du. Programa horretan, erakundeko pertsonen ingurunean eragin positiboa duten lankidetzak proiektuak proposatzen eta aukeratzen dituzte. 2023an bukatu da programa horren bigarren edizioa, non 523.000€-rekin lagundu baitzaie hiru erakunderi, eta laguntza horien 2024-2026 aldiko ziklorako aukeraketa prozesua abiarazi da.

Gainera, taldeak tokiko hornitzaileak edukitzeko apustua egin du, eta gaur egun bere hornitzaileen %80 estatukoak dira eta %70 EAEkoak eta Nafarroakoak.

Era berean, arreta berezia jarri da belaunaldien artean eta, bereziki, emakumeen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko, eta, horretarako, 2023an Mondragon City Challenge, ZTIM Hub, Zientzia Azoka, Bizilabe, Gladys sariak, Ada Byron sariak, IMH sariak edo GAL/MAL Mondragon sariak babestu ditu eta 2024an First Lego Leaguerekin lankidetzak bat ezartzeko egin du lan.

Pertsonekin, ingurumenarekin eta gizartearekin duen konpromiso hori ASG eremuen bitartez inplementatuta, kooperatiba guztien DNAREN funtsezko parte bihurtu da, eta horren emaitza izan da Danobatgroupek urte errekorra izatea, emaitza ekonomikoei dagokienez, berriro erregistro historikoa lortuta, 337 milioi euro fakturatuta.

Hauek ere ekarri dute hazkunde hori: berrikuntzaren alde etengabe egindako apustua, 2023an 28 milioi eurotik gorako inbertsioa egin baitzen I+Gn; nazioarteko hedapena, Shangain bikaintasun zentro berri bat irekiz; instalazioen modernizazioa, Soraluze muntaketa instalazio berria inauguratuz, eta, gainera, LEED ziurtagiria (Energiako eta Ingurumen Diseinuko Lidergoa) eta dibertsifikazio teknologikoa.

Begirada hurrengo plan estrategikoan jarrita, hazkunde ekonomikoaren, ingurumenaren babesaren eta gizarte ongizatearen arteko oreka horrek eta Danobatgroupeko pertsona guztien konpromisoak eta inplikazioak ere funtsezkoak izaten jarraituko dute, taldea jasangarritasunerako erreferente gisa sendotzeko eta etorkizunerantz erabakitasunez aurrera egiteko, gure balioetan irmoki oinarrituta.

Andres Mazkieran
Danobatgroupeko presidentea



Pello Rodriguez
Danobatgroupeko zuzendari nagusia



Danobatgroupen jasagarritasuna kudeatzeko ikuspegia (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa)

01. Estrategia

Danobatgroupen negozioen estrategia sozioenpresarialen barruan jasagarritasuna integratzea, berez, 2021ean taldeak egindako Plan Estrategikoan jasotako zortzi lerro estrategikoetako bat da.

02. Materialtasuna

Danobatgroup, jasagarritasunaz ari denean, materialtasun matrizean jasotako hamahiru gai materialen garapenaz eta kudeaketaz ari da.

* *Ikus memoria honetako 9. atala: Gai materialak identifikatzeko prozesua.*

03. Plana

Jasagarritasun estrategia betetzeko, 2022an lehen aldiz jarri zen martxan Jasagarritasun Plana, non plan hori gauzatzeko helburuak, ekintzak eta adierazleak biltzen diren.

04. Jasagarritasun Batzordea


Jasagarritasunaren kudeaketa gidatzeko, 2021ean Jasagarritasun Batzordea sortu zen, Zuzendaritzako, Kontseilu Errektoreko eta Taldeko negozioetako adituek osatua.

Batzorde horrek identifikatu diren gai materialekin zerikusia duten jarduerak koordinatzen eta monitorizatzen ditu.

05. Reportinga eta komunikazioa

Jasagarritasunari buruzko urteko memorian Danobatgroupen gai materialei dagokienez egindako kudeaketa eta bilakaera jasotzen dira. Memoria taldearen webgunean argitaratzen da, eta barneko zein kanpoko zabalkundeak ematen zaio.

Era berean, Danobat eta Soraluze enpresek urtero argitaratzen dute beren informazio ez-finantzarioko txostena.



2023ko konpromisoak eta ekintza nabarmenak

Gobernantza

- Enpresa portaera etiko eta arduratsua izatea.
- Gobernu kooperatibo onaren eta jardute ekonomikoaren estandar gorenak lortzea.
- Publikoki, konpainia oso, garden eta arduratsuz hartuak izatea.
- Aliantzak, kolaborazio estrategikoak eta elkarren arteko lankidetzak areagotzea.

Neurri berriak ezarri dira **Legea Betetzeko Prozeduran** (Compliance). Besteak beste, salaketan kanala hobetu da, eta gatazka eta jazarpenerako protokoloa egokitu da, azken lege-aldaketetan oinarrituta.

ASG eremuei lotutako hiru politika berri sortu eta onartu dira: **iraunkortasun-politika, gizarte-ekintzako politika eta aniztasun-eta berdintasun-politika**

Ingurumena eta klima

- Lehengaien kontsumoak eragiten duen ingurumen inpaktua murriztea.
- Efizientzia energetikoa hobetzea eta iturri berriztaezinen kontsumoa murriztea.
- Produktuek beren bizi ziklo osoan duten ingurumen inpaktua minimizatzea.
- Hondakinen sorrera murriztea eta birziklapenaren bidez ekonomia zirkularrerantz aurrera egitea.
- Deskarbonizazio prozesuarekin jarraitzea.
- Ingurumenaren arloko kudeaketa sistemak bezeroen eskakizunetara egokitzea.

Eraikinen estalkietan **panel fotovoltaiko** gehiago implementatzen jarraitu da, eta eguzki-baratze batean inbertitu da, etorkizunean energia hori eskuratzeko.

Taldeko enpresa gehien **erakundeko karbono-aztarnaren 1., 2. eta 3. irismenaren kalkulua** egin da.

Mugikortasun Plana sortu ondoren, honekin lotutako lehen neurria ezarri da: partekatutako autoaren erabilera sustatzeko eta areagotzeko APPa.

Ekodiseinuan 4 makina-modelo berri ziurtatu dira.



Pertsonak

- Langileen segurtasun eta ongizatean erreferente izatea.
- Makina-erremintaren sektorean aitzindariak izatea berdintasuna, inklusioa, aukera aniztasuna eta diskriminaziorik eza bultzatzeko neurriak inplementatzen.
- STEM alorrean talentuaren garapena bultzatzea, bai gure pertsonentzat, bai gizartearentzat.
- Erakundeko pertsonen garapen pertsonal eta profesionalerako ingurune ezin hobea sortzea.

Berdintasun planak taldeko enpresa guztietara hedatu dira.

Intzidentzia indizea 15,18tik 13,45ra jeitsi da.

Mondragón City Challenge , ZTIM HUB, Zientzia Azoka, Bizilabe, Gladys sariak, Ada Byron sariak, Mondragon TFG/TFM sariak eta IMH sariak bultzatu dira.

Ingurunearen garapen jasangarria

- Bizi baldintzak hobetzea eta Taldea dagoen komunitateetan garapen jasangarria sustatzea.

Estatu mailako hornitzaile industrialen %80eko kuota.

565.313 € garapen sozialarekin lotutako ekintzetarako

Kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza

- Bezeroei kalitatezko produktuak eskaintzeko konpromisoa.
- Bezeroaren segurtasuna eta pribatutasuna zaintzea.
- Berrikuntzan jardutea, ahalik eta eraginkorrenak izateko eta bezeroa gogobetetzeko.

28 M€-tik gorako gastua I+G+b ekintzetan.

Bezeroekiko **komunikazio-kanal irekien** jarraipen arin eta eraginkorra egiteko tresnan hobekuntzak egin dira.

Danobatgroupi buruz

- Sarrera
- Danobatgroup zenbakitan
- Kooperatibak eta markak
- Talde global bat
- Misioa, bisioa eta balioak
- Negozio berriak eta elkarren arteko lankidetzak
- Aliantzak

Sarrera

Danobatgroup industria talde kooperatibo bat da, eta makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago, eskakizun zorrotzeko sektoreentzat, hala nola automobilgintza, aeronautika, trengintza edo energiaren sorreraren sektoreentzat, besteak beste.

Taldea Mondragon Korporazioko kidea da eta 70 urteko ibilbidea egina du doitasun handiko sistemak garatzen eta fabrikaziorako diren teknologiak ikertzen eta aplikatzen. Makina-erreminten fabrikatzaile handiena da Espainian, eta ekoizle nagusietako bat Europan. 1.400 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu, eta urtean 300 milioi eurotik gorako fakturazioa du; fakturazio horretatik, %90 baino gehiago nazioarteko merkatuetatik dator.

Taldeko enpresa nagusiak hauek dira: Danobat, artezteko makinen, doitasun handiko tornuen eta doitasunezko mekanizazio lerroen Europako fabrikatzaile nagusietako bat, Hembrug eta Overbeck filialen eskaintza barne hartzen duena; Soraluze, fresaketa, mandrinaketa eta funtzio anitzeko teknologian mundu mailako fabrikatzaile aitzindaria; eta Goimek, doitasunezko mekanizazioetan eta konplexutasun handiko mekanizazio handietan espezializatutako enpresa. Etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko, bere balio proposamena dibertsifikatzeko eta aukera berriak esploratzeko, Danobatgrouppek aliantzen politika bat ere badu aktibo, enpresa berriak eskuratuta, startup-en kapital sozialean parte hartuta edo hurbileko arloetan lankidetzak estrategikoak bultzatuta, besteak beste Savvy, Endity eta Novak enpresekin egin duen bezala.

Nazioarteko bokazioa izatea eta kanpoko merkatuetara irekita egotea izan dira beti Danobatgroupen nortasun ezaugarrietako bat, eta enpresak fabrikazio lantegi gehienak Euskadin dituen arren, Alemanian, Herbehereetan, Errumanian eta AEBetan ere baditu fabrikazio plantak, eta Bikaintasuneko Zentroak herrialde estrategikoetan, hala nola Alemanian, Italian, Herbehereetan, Estatu Batuetan eta Txinan.

Berrikuntzaren aldeko apustua

Danobatgroupen ezaugarria da berrikuntza eta teknologia aitzindarien garapenaren aldeko apustu irmoa egiten duela; izan ere, konpromiso horrek bere izaera markatu du, eta bere ezaugarri funtsezkoenetako bat bihurtu da. Hala, bere diru sarreraren %9 baino gehiago berrikuntzan inbertitzen du, patente propioen 44 familia ditu ustiapenean, eta bere berrikuntza motor gisa funtzionatzen duen partner teknologiko bat du: Ideko ikerketa zentroa.

Talde kooperatiboa, jasangarria eta pertsonekin eta ingurunearekin konprometitua

Taldea nabarmentzen da, halaber, jasangarritasunaren alde eta pertsonen eta ingurunearen ongizatearen alde egiten duen apustu irmoagatik. Konpromiso hori gauzatzeko, ingurumen, gizarte eta gobernu oneko (ASG) irizpide zorrotzak txertatu ditu bere estrategian. Bide orri horretan, bere eguneroko kudeaketa Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) batzen da, horrela balioa ematen jarraitzeko, sortu zenetik egiten ari den bezala.



Kooperatibak eta markak



SORALUCE

60 urte baino gehiagoko esperientzia bermatuta eta berrikuntza euskarrituta, Soralucek makina-erremintaren sektorea bultzatzen du, ingeniartzaren arloan egiten dituen etengabeko ekarpen berritzaileei esker, sektoreko erreferente bihurtu baita.

Merkatuan 3.000 makina baino gehiago instalatu ondoren, Soralucek fresatzeko makina, mandrinatzeko makina eta tornu bertikalen, funtzio anitzeko soluzioen eta linea eta sistema automatizatuen aukera zabala eskaintzen du. Mekanizazio ingeniartzako aholkularitza profesionala ematen du, bere bezeroen ekoizpen eta mekanizazio prozesuak ebaluatuz eta horiek optimizatzeko soluzioak proposatuz, inbertitzaileak eskatutako kalitate, efizientzia eta kostu parametroen ildotik.

Soraluceren arrakasta honako hauetan oinarritzen da: lehen mailako kalitatea, zerbitzu izarra, abangoardiako teknologia propioa, pertsonalizazio gaitasun handia eta nazioarteko ikuspegi argia.



DANOBAT


Danobatek 70 urte daramatza bere bezeroei soluzio eta fabrikazio zerbitzu aurreratuak eta guztiz pertsonalizatuak eskainiz. Horren ondorioz, enpresa fabrikazio aurreratuko soluzioen hornitzaile nagusietako bat da.

Hiru marka ospetsu dauzka:

Danobat, ekipamendu berritzailearen garapenean espezializatua dagoena, hala nola artezteko makinetan, tornuetan eta mekanizazioerako sistema robotikoetan; balio handiko zerbitzuak eskaintzen ditu fabrikazioaren arloan.


Overbeck, 90 urte baino gehiagoko esperientziarekin, doitasun handiko barnealdeak, kanpoaldeak, aurpegiak eta erradioak artezteko makinen garatzaile eta fabrikatzaile alemaniar ospetsua da.

Hembrug-ek gogorrean ultradoitasunez torneatzeko makina erabat hidrostatoak diseinatu, eraiki eta saltzen ditu, baita torneatzeko eta artezteko gaitasuna duten makina hibridoak ere.



GOIMEK

Goimek espezialista da doitasunezko mekanizazioen eta mekanizazio handien zerbitzuetan, oso zorrotzak diren sektoreetako pieza estrategikoetarako; horien artean, sektore aeroespaziala, energia eolikoa eta ekipa ondasunak. Ekoizpen bitartekorik aurreratuak eta azken belaunaldiko egiaztapen tresnak dauzka.



LATZ

40 urte baino gehiago dira Latzek altzairu azkarreko eta metal gogorreko ebaketa tresnak diseinatu eta fabrikatzen dituela automobilgintza, aeronautika, ekipa ondasunak eta halako sektoreetarako, produkzio erronka zorrotzeneri erantzunez eta bezero bakoitzaren beharrei soluzio pertsonalizatuak eskainiz.



IDEKO MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

Ideko zentro teknologikoa fabrikazio aurreratuko teknologietan espezializatuta dago, industrian egun dauden eta etorkizunean egongo diren erronkei erantzuteko gai diren teknologia berriak sortu, eskuratu eta garatzeko.

Fabrikazio teknologietan espezializatuta egoteak aukera ematen dio sektore estrategikoetan dituen bezeroen produkzio ahalmena eta lehiakortasuna hobetzeko soluzio aurreratuak eskaintzeko.

Danobatgroup zenbakitan



1462

Pertsona



>%90

Esportazioa



337 M€

Fakturazioa



>%9

I+G+Bko inbertsioa



Herrialde nagusiak:

- TXINA
- ALEMANIA
- ITALIA
- ESPAINIA
- AEB
- MEXIKO




Sektore nagusiak:

- AERONAUTIKOA ETA AEROESPAZIALA
- AUTOMOBILGINTZA ETA MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA
- EKIPO ONDASUNAK
- ENERGIA
- TRENGINTZA

Talde globala

Beti bezeroarengandik hurbil egoteko eta hari jarduera modu eraginkorrean egiten laguntzeko, taldearen negozioek badauzkate:

- Fabrikazio lantegiak Espainian, Alemanian, Herbeheretan, Errumanian eta AEBetan.
- Bikaintasun zentroak Espainian, Alemanian, Italian, Herbeheretan, Estatu Batuetan eta Txinan.
- Ordezkaritza komertzialak eta zerbitzu teknikokoak beste herrialde askotan.



Bisioa eta balioak

Gauzak egiteko beste modu bat.

Danobatgroup enpresa kooperatibozko talde bat da, pertsonak eta lankidetzaren ardatz balio propioak dituen. Bakoitzaren talentua, dedikazioa eta konpromisoa dira bere oinarriak, eta lankidetzaren bidez emaitzak lortzeko gakoak.

Inguruan aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko enpresa-arloan aurrera egiten duen taldea da, legatu zentzuarekin lan egiten duena, kudeaketa-eredu sendo eta partekatu baten bidez.

Batzen eta desberdin izatera bultzatzen duen hurrengo balioetan oinarritzen da taldea.



Konpromisoa

Langile eta enpresako bazkide gisa inplikatzeko gaitasuna.



Bezeroarenganako orientazioa

Haien beharrak ezagututa eta haiekin lankidetzan arituta, soluziorik onenak eskaini ahal dizkiegulako, eta elkarrekin hazi.



Berrikuntza

Etengabe eboluzionatzen ari den mundu honetan, aldaketarako prest eta irekita gaudelako.



Lankidetzaren

Proiektu komun eta partekatu baterako elkarrekin lan egitea gure enpresa proiektuaren iraunkortasunerako oinarria delako.



Konfiantza

Hartzen ditugun erabakiak betetzen ditugulako eta erabaki horiekin koherenteak garelako.

Negozio berriak eta elkarren arteko lankidetzak

Hazkunde jasangarriko estrategiaren eta kalitatezko enplegua sortzeko misioaren barruan, Danobatgroupek bere enpresen hazkundera bultzatzen du, eta, aldi berean, enpresa horietan partekatutako jardueren garapena sustatzen du.

Era berean, Taldeak Mondragon Korporazioaren baitan beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzea sustatzen du, eta beste enpresa eta talde batzuekin batera dihardu, MIA -Mondragoneko Automatizazio Industrialaren dibisioarekin esaterako; hori guztia helburu handiagoak lortzeko eta balio erantsi handiko soluzioen proposamena handitzeko egiten du.

Gainera, balio proposamena dibertsifikatzeko eta negozio aukera berriak aztertzeko helburuarekin, Danobatgroupek aliantza estrategia bat garatzen du. Estrategia horren bidez, enpresa berriak eskuratzen ditu, Startup-en kapitalean parte hartzen du, beren jardute eremuetan erreferenteak izateaz gain, lankidetzak akordio estrategikoak egiten baitituzte Tadeko enpresen jarduerara osagarria edo haien ondokoa duten enpresekin.

Aliantzen strategiaren ondorioz, 2015ean, Savvy Data Systems enpresaren partaidetza nagusia bereganatu zuen, zeina digitalizazio prozesuetan eta datuen kudeaketan espezializatua baitago. Eragiketa horren bidez, Danobatgroupek digitalizazio industrialaren eta 4.0 industriaren aldeko apustua berretsi zuen.



2020an, ikuskapen ez-suntsitzailearen eremuan kokatzeko helburuarekin, Taldeak Endity Solutions enpresa sortu zuen.



2022an, Danobatgroupek partaidetza nagusia bereganatu zuen NOVAK enpresan. Hala, Taldeak artezketaren eta biraketa mekanizazioen arloan dituen gaitasunak handitu ditu, eta, gainera, Danobat eta Soraluze makinetan txertatuta dauden core piezen kalitatea hobetu du.



Uhin-fronte-faseko irudien bidez erdieroaleen metrologiaren mundua gehiago ezagutzeko asmoz, 2023an taldea Fagor Automation eta Mondragonekin batera Wootix enpresaren kapitalean sartzen da.



Aliantzak

Industriak behar dituen teknologiak garatzeko gai izateko, Danobatgroupek etengabe eta proaktiboki bilatzen du beste eragile garrantzitsu batzuekin aliantzak eta kolaborazio estrategikoak egitea.

Azpimarratzekoa da, garrantzi berezia duelako, Ekipo Ondasunen proiektu traktorea, Mondragonen Automatizazio Industrialaren dibisioaren barruan (MIA), non Danobatgroupek makina-erremintaren esparruan sinergiak bilatzen parte hartzen duen, Fagor Arrasate, Fagor Automation eta Mondragon Assembly kooperatibekin batera.

Era berean, industria taldeak aktiboki parte hartzen du kluster batzuetan eta tokiko erakunde batzuetan, hala nola Debegesan, Heganen eta Bind 4.0n, besteak beste. Innobasque Zientzia eta Teknologiaren Euskal Kontseilua eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde publikoetan eta aldundien eta udalen esparruan diharduten beste erakunde batzuetan ere parte hartzen du aktiboki. Era berean, Danobatgroupek tokiko eta nazioarteko ekimen sektorialekin bat egiten du. Horra hor, besteak beste, AFM, VDW, AMT eta UCIMU.

Ideko zentro teknologikoaren bitartez, gainera, taldeak baliabideak batzen ditu lankidetzak akademikoaren bidez. Horri esker, Danobatgroupek eta bere enpresek beren bikaintasun zientifiko eta teknologikoaren maila igo dezakete, ospe handiko erakundeekin lankidetzan arituz, hala nola Bremengo

Unibertsitatearekin, Waterlooko Unibertsitatearekin edo Budapestekoarekin. Baita ETH-Zurich edo SCC-Austriarekin ere.

Danobatgroupek fabrikazioaren arloan erreferenteak diren foro eta plataformetan ere parte hartzen du. Aipatzekoak dira, besteak beste, CIRP industriako ekoizpenaren nazioarteko akademia, Euspen, Mondragoneko Foroak, The Society for the Advancement of Material and Process Engineering eta SAMPE.

Danobatgroupek etengabe eta proaktiboki bilatzen ditu aliantzak eta kolaborazio estrategikoak.



Aliantzak

Danobatgroupen kolaborazio hauek nabarmenduko ditugu, lankide dituen enpresa horietan bereziki aktiboa delako eta/edo haien erabaki organoetan parte hartzen duelako:



Ekipo Ondasunen Proiektu Traktoreak, Mondragonen Automatizazio Industrialaren dibisioaren barruan (MIA), makina-erremintaren alorrean sinergiak sortzea bilatzen du, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Mondragon Assembly eta Danobatgroup kooperatiben arteko proiektu bateratuak sustatuz.



Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Eusko Jaurlaritzaren, SPRI taldearen, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 16 eragile zientifiko teknologikoren arteko lankidetzaren hitzarmena da.



Adimen Artifizialaren Euskal Zentroaren helburua da Euskadin Adimen Artifizialaren garapena gidatzea eta bultzatzea, enpresen lehiakortasuna eta euskal gizartearen ongizatea hobetzeko.



Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroaren (CFAA) helburua da fabrikazioko teknologia aurreratuak garatzea, industria sarera azkar transferitzeko moduan garatuta, ekonomiaren funtsezko sektore horretara bideratuta.



Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Tresnen Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.



Debarrena eta inguruko eskualdeen ekosistema industrialak osatzen duten eragile guztien arteko lankidetzaren eta lerrokatzea bilatzen duen estrategiaren parte da BPTD. Eragile horien artean daude barrutiko enpresak, erakundeak eta instituzioak, "Ekonomia industrialaren hazkundearen zerbitzura egongo den eta berritzailea eta jasangarria izango den lan esparru berria" sortzea helburu.



Ekoizpen Ingeniaritzarako Nazioarteko Akademia (CIRP) ekoizpen ingeniartzaren ikerketan munduko erakunde liderra da, eta prozesuen, makinaren eta sistemen diseinuaren, optimizazioaren, kontrolaren eta kudeaketaren abangoardian dago.



Sheffieldeko Unibertsitateko Manufaktura Aurreratuko Ikerketa Zentroa (AMRC) munduko klaseko zentro bat da, eta munduan aitzindariak diren mekanizazioari, fabrikazioari eta material aurreratuei buruzko ikerketak egiten ditu industria aeroespazialerako eta balio handiko beste fabrikazio sektore batzuetarako.



Interakzioaren, lankidetzaren eta ezagutza partekatua bidez Gipuzkoako industrian aurrerapen teknologikoa inspiratzen eta sortzen duen fundazioa.

01, 02 eta 03 ataletako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude

17

HELBURUAK
LORTZEKO
ALATZA



GRI-2 — [22] [28]

Kudeaketa eredu etiko, solidario eta parte hartzailea

- Gobernu egitura
- Kooperatiben arteko elkartasun mekanismoak
- Betetze programa eta IGG
(Ingurumen, Gizarte eta Gobernu Ona) politikak
- Komunikazioa eta gardentasuna

Danobatgroup enpresa kooperatiboen talde bat da, eta enpresaren parte hartze eredu inklusibo baten arabera egiten du bere jardura. Eredu humanista horren helburua da enpresaren lehiakortasuna hobetzea eta pertsonen garapena sustatzea, eta, horretarako, erakundeko kide guztiek proiektu sozioekonomikoaren definizioan parte hartzea, abian jartzeko eta funtzionatzeko prozesuan inplikatzeko, eta emaitzetan erantzukizun partekatua izatea.

Hori lortzeko, prestakuntza kooperatiboa -profil desberdinei eta formatu espezifikoaren bidez- funtsezko osagaia da pertsonen beharrezko ezagutza emateko, enpresa kudeaketan ardura hartu eta aktiboki parte hartzeko. Elkartasuna, gizarte eraldatzeko palanka gisa, kudeaketan txertatutako beste tresnetako bat da Danobatgruppen.

Azken batean, kudeaketa eredu sendo eta partekatua da, legatu zentzua duena, hainbat eta hainbat mekanismoren bidez pertsonen inplikazioa sustatzen duena, eta kooperatiba bakoitzaren Estatutu, Barne Araudiaz eta beste hainbat prozedura eta politika korporatibo multzo horietan dagoena, non taldearen jarduna arautzen duten printzipioak eta jarraibideak zehazten diren, Mondragonen kudeaketa kooperatiboaren ereduaren barruan.

Danobatgroupek aurrera egiten du...



Neurri berriak txertatuz Legea Betetzeko prozeduran.



2030 Agendaren helburuekin bat datozen helburuak ezarriz.

Espanian Whistleblowing Zuzentarauaren transposizioaren ostean, lehenik zegoen **salaketa kanala** hobetu da, komunikazio kanal anonimo, ireki, publiko eta irisgarri bat sortuz.

Gatazka eta jazarpen protokoloa:

Azken lege-aldaketetan oinarrituta egokitu da eta hobekuntza nabarmenak sartu dira arduradunen izendapenari dagokionez.

2023an, ESG alorrekin lotura duten politika hauek hauek sortu eta onartu dira:

- **Jasangarritasun politika**
- **Gizarte-ekintzarako politika**
- **Berdintasun eta aniztasun politika**



Gobernu egitura eta parte-hartzea

Danobatgruppen antolaketa eredu bi zutabetan oinarritzen da: enpresa bazkide bakoitzaren organoak eta taldearen kooperatiba arteko organoak.

Horrek aukera ematen du Danobatgruppen jarduera kooperatiba artean kudeatzeko, non enpresa bazkide bakoitzak bere autonomia eta subiranotasuna mantentzen dituen, eta aldi berean funtzio batzuk Taldeko organo korporatiboei lagatzen zaizkien eta enpresa desberdinetako pertsonen organoetan duten lankidetzeta eta parte hartzea sustatzen diren, kudeaketa efizienteagoa eta efektiboagoa izateko.

Danobatgruppen kooperatiba arteko gobernu organoak

Organoa	Funtzioak eta ezaugarri nagusiak
Batzar Nagusia	Batzar Nagusia da Taldeko Kooperatiben borondatea adierazteko organo gorena, kooperatibei eta haien bazkideei eragiten dieten gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratuia, Estatutu Sozialetan ezarritako eskumen esparruaren barruan.
Kontseilu Errektorea	Kontseilu Errektorea da Danobatgruppen ordezkariak, gobernu eta kudeaketarako organoa, eta horri lotutako ahalmen guztiak gauzatzen ditu, Legeak edo Estatutu hauek beste organo sozial batzuei berariaz esleitzen dizkietenak izan ezik. Kontseilu Errektoreak Mondragonek definitutako politika orokorren barruan jardungo du.
Zuzendaritza Nagusia	Zuzendari nagusia da, Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, Danobatgruppen eta kooperatiba bazkideen organo betearazle gorena enpresa funtzioekin zerikusia duen guztian, eta Mondragoneko Kontseilu Nagusiko lehendakariaren zuzendaritzapean dihardu.



Danobatgroupeko enpresa kooperatibo bakoitzaren gobernantza

Taldearen gobernantza egituraz gain, kooperatiba bakoitzak bere gobernu organoak ditu. Batzar Nagusia, non bazkide guztiek, Kontseilu Errektoreak, Kontseilu Sozialak, Zaintza Batzordeak eta Zuzendaritza Kontseiluak parte hartzen duten.

Batzorde espezifikoak

Gainera, batzordeak sortu dira plangintza estrategikoa koordinatzeko eta horri erantzuteko. Batzordeen kopurua aldatu egiten da une bakoitzeko beharren arabera, eta Danobatgroupeko Zuzendaritza Nagusiak eskatuta sortzen dira.

- Finantza Batzordea
- Gestion Sozialeko Batzordea
- Jasangarritasun Batzordea
- Erosketa Batzordea
- Berrikuntza Batzordea
- Kalitate eta Diseinu Industrialeko Batzordea
- Marketin eta Komunikazio Batzordea
- Segurtasun eta Osasun Batzordea
- Euskara Batzordea
- Berdintasun batzordea

Mondragoneko organoak

Azkenik, Mondragon Korporazioko gobernu organoetan parte hartzen da. Organo horien artean daude Mondragoneko Kontseilu Orokorra, Kontseilu Industrialak, Batzorde Iraunkorra eta Kongresua.

Pertsonen parte-hartzea eta elkarrizketa soziala

Pertsonen parte-hartzea eta elkarrizketa soziala etengabekoa da erakundearen egunerokoan, eta Estatutu Sozialetan zein ezarritako lan-dinamiketan eta komunikazio-bideetan islatzen da. Danobatgroupeko enpresetan sustatutako lidergo ireki eta horizontalaren estiloaren isla leiala da antolaketa-eredu hori.

Kontseilu Errektorearen, Kontseilu Sozialaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren arteko etengabeko elkarreraginaren bidez, eta parte hartzeko beste bide batzuk ezarriz (bilera irekiak, hitzaldiak,...), bermatzen da langile orok proposamenak egiteko aukera izango duela eta, aldi berean, bere ahotsa kontuan hartuko dela sail espezifikoetatik kanpo dauden gizarte eta antolaketa gaiei dagokienez.

Ildo horretan, nabarmentzekoak dira Taldeko enpresa guztiek gizarte-harremanetarako erreferentzia-esparru orokor gisa dituzten Estatutu Sozialak, Barne Araudia eta Lan Arauak.



Kooperatiba arteko elkartasun mekanismoak

Elkartasuna, gizartea eraldatzeko palanka gisa, kudeaketan txertatutako beste tresnetako bat da Danobatgroupen.

Kooperatiba bakoitzaren soberakinak berretsita, elkartasun mekanismo bat aktibatzen da, emaitzak birmoldatuta, banaketa honen arabera:



%8 + %5 gehigarria

emaitza negatiboa eduki duten kooperatiben galerak konpentsatzeko.



%10

Dibisioaren finantza funtsetara.



%7

Mondragon Korporazioaren funtsetara.

Birmoldaketa egin ondoren, eta sozietateen gaineko zerga kenduta, soberakina Batzar Nagusiak erabakitzen duenaren arabera banatuko da, honako arau hauei jarraiki:



Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuziorako (IPDK) eta Nahitaezko Erreserba Funtserako erabiliko da, gutxienez, legez ezarritako zenbatekoa.



Gainerako soberakin garbiak itzulkin kooperatiboetara eta/edo Borondatezko Erreserba Funtsera bideratuko dira.

Danobatgruppen adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiak	2021	2022	2023
Salmentak	199.517.000 €	223.994.000 €	274.152.000 €
Salmenta bateratuak (filialak gehituta)	250.266.000 €	277.000.000 €	336.982.000 €
Etekinak: interesen, birmoldaketaren eta IPDK funtsen zuzkiduraren aurretik	16.073.000 €	18.139.000 €	28.130.000 €
Finantza Zor Garbia / EBITDA ratioa	-3,47	-3,29	-0,72
Independentzia ratioa	1,5	1,59	1,53

Betetze programa eta IGG politikak

Taldearen negozioren eredu kooperatiboa gauzak hobeto eta modu desberdinean egiteko konpromiso pertsonal eta kolektiboan oinarritzen da. Proiektu sozioenpresarial integratzailea, solidarioa, jasangarria eta eraldatzailea sustatu nahi da, Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Aderazpen Unibertsalaren printzipio inspiratzaileei jarraituz.

Horrela, taldeak konpromisoa hartzen du pertsonekin eta ingurunearekin, eta erantzukizunaren eta giza eskubideen errespetuaren kultura garatzen du. Halaber, Taldeko enpresek Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) oinarritzko hitzarmenetan zehaztutako xedapenen arabera dihardute. Xedapenok honako gai hauek dituzte ardatz: elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatzea; enpleguan diskriminazioa ezabatzea; behartutako edo nahitaezko lana ezabatzea eta haurren lana desagerraraztea.

2023an Salaketen Kanala hobetu egin da, eta komunikazio-kanal anonimo, ireki, publiko eta irisgarri bihurtu da

Betetze programa

Jardute esparru orokor honetan, eta, besteak beste, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka borrokatzeko helburuarekin, Taldeko enpresa nagusiek Betetze Programa bat landu dute, Kode Etikoa barne hartzen duena, eta honako hauek oinarri dituena: ustelkeriaren aurkako politikak, interes gatazkak, pribatutasuna eta konfidentziasuna, gatazkaren eta jazarpenaren aurrean jardutea eta Arrisku Penalak Prebenitzeko Eskuliburua.

Araudia betetzeko programa hori Betetze Programa eraginkor izateko beharrezkoak diren aurretiazko prozesuak egin ondoren egin da, zehazki:

- **Arrisku penalen diagnostikoa**
- **Arrisku Penalak Prebenitzeko Plana**

Aipatzekoa da 2023an gatazkaren eta jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa eguneratu dela, azken lege-aldaketetara egokituz eta hobekuntzak egin direla arduradunen izendapenari eta prozedurari dagokionez.

Halaber, arrisku penalak prebenitzeko sistemaren funtzionamendua monitorizatzeko sistema bat jarri da abian, Salaketen Kanala bat prestatu da, Zaintza Batzorde bat eratu eta arautu da, eta langile guztiei jakinarazi zaie araudia betetzeari buruzko guztia.

Beste funtzio batzuen artean, Batzorde horrek Kode Etikoaren zabalkundea eta ezagutza kudeatu eta sustatzen ditu; araudiaren edozein interpretazio zalantzari erantzuten dio eta gatazka egoera posibleak argitzen ditu, halakorik ez dadin gerta; salaketak eta ez-betetze posibleak ikertzen ditu, eta, kasu horretan, dagozkion ekintzak gauzatzen ditu; urtero, betetze mailari buruzko informazioa biltzen du eta Kode Etikoa berrikusten du, eta langileei berrikuspenaren emaitza eta hobekuntza ekintzak jakinarazten dizkie.

2023ko martxoaren 13an indarrean sartu zen Whistleblowing Zuzentarauaren transposizioaren ondoren, ustelkeria-informatzaileak babesteko Legearen bidez (2/2023 Legea, 2023ko otsailaren 20koa, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena), 2023an Salaketen Kanala hobetu egin da, eta komunikazio-kanal anonimo, ireki, publiko eta irisgarri bihurtu da, kode etikoaren irregulartasunen edo ez-betetzeari komunikazio konfidentzial eta arina errazteko.

IGG politikak eta kontuan izan beharreko beste elementu batzuk

Taldeko enpresek hainbat politika dituzte ingurumen, gizarte, ekonomia eta gobernantza arloetan, hala nola Danobatek duen laneko segurtasuna eta osasuna, kalitatea, ingurumena eta energia kudeatzeko politika integratua eta Soralucek duen segurtasun, kalitate, ingurumen eta ekodiseinu politika integratua.

Gainera, erakunde guztiek dituzte:

Hornitzaileentzako jokabide-kodea

Azpiktratazioaren eta hornitzaileen kudeaketaren barruan, Jokabide Kode espezifiko bat dago, eta, horren bidez, erakunde hornitzaileak adierazten du bere jardura lanean, ingurumenean eta ustelkeriaren aurkako praktiketan giza eskubideak errespetatzeko balio nagusien arabera garatuko dela.

Informazioaren segurtasun-arauak

Arau horien bidez, Danobatgroupek informazioaren segurtasunarekin lotutako protokoloak eta arauak landu ditu. Horrela, pertsona guztiak inplikatzeko dira informazioaren konfidentziasuna bermatzeko eta ekipo informatikoak behar bezala erabiltzeko (konfidentziasun arauak, jabetza industrial eta intelektuala, konkurrentziarik eza, erantzukizuna eta informazio sistemen erabilera egokia).

2023an, funtsezko hiru politika berri sortu eta onartu dira talde mailan, etorkizunean enpresetan inplementatzeko aurreikuspenarekin, iraunkortasunaren eremuan aurrera egiten jarraitzeko:

Jasangarritasun politika

Politika hori erreferentziazko esparrua da Danobatgroupek erabakiak hartzeko prozesuan, bere jardueraren garapenean eta taldeko interes-talde nagusiekiko harremanetan ingurumenarekin, gizartearekin eta gobernu onarekin lotutako gaiak (ASG) eraginkortasunez integratzeko.

Gizarte-ekintzako politika

Danobatgroupen Jasangarritasun Estrategiaren gizartearekiko konpromisoaren eremuari dagozkion helburuak eraginkortasunez integratzeko erreferentzia-esparrua da politika hau.

Aniztasun- eta berdintasun-politika

Eremu inklusiboak eta bereziki genero-berdintasuna bultzatzen duten kulturak sustatzeko esparrua da, bai eta pertsonen aniztasuna, zentzurik zabalenean, errespetatzeko eta integratzeko ere.

Etika eta gardentasun kultura horri esker, zero ustelkeriaren helburua lortzen da, 2023an Danobatgroupeko enpresa guztiek egin duten bezala.

Era berean, 2023an ez da inolako salaketarik jaso giza eskubideen urraketengatik, ez eta beste printzipio etiko batzuen urraketengatik salaketarik ere. Era berean, ez da identifikatu lehia desleialarekin, praktika monopolikoekin eta lehia askearen aurkako praktikekin lotutako ekintza juridikorik, ezta arlo sozial eta ekonomikoan legeak eta araudiak ez betetzearekin lotutakorik ere.

Ustelkeria kasu

0

Urraketa giza eskubideetan

0



Komunikazioa, gardentasuna eta prestakuntza kooperatiboa

Danobatgroupek gardentasunaren eta barne komunikazio arinaren kultura du ezaugarri, eta kultura hori gobernu organo ezberdinen bidez, eta aurkezpen eta hitzaldien bidez zabaltzen da.

Taldeak barne tresnak ere ezarri ditu, hala nola enpleguaren ataria eta posta elektronikoko bidezko komunikazio kanala, besteak beste, langileei gai garrantzitsuen berri emateko.

Gainera, kanpoko komunikazio kanalak gaitu dira, hala nola web korporatiboa, sare sozialak eta newsletter-ak, interes taldeekin elkarrizketa arina izateko.

Erakundeko pertsonen balio eta beharrekin lerrokatutako enpresa kultura bat edukitzearen garrantziaz jabetuta, 2010etik, 2-3 urtean behin, antolaketa kulturari buruzko inkestak egiten dira.

Era berean, Danobatgroup konturatzen da erakundeko pertsonen garapenak duen garrantziaz, pertsona horiek enpresa kudeaketaz ardura daitezen eta lan horretan aktiboki parte har dezaten. Hori lortzeko, prestakuntza kooperatiboa kudeaketa kooperatiboaren ereduaren funtsezko osagaia da.

Horregatik, profil desberdinetara bideratutako eta formatu espezifikoak dituzten prestakuntza kooperatiboko programak daude, hala nola enpresetako gobernu organoetan sartzen diren pertsonen zuzendutako prestakuntza, zuzendariei zuzendutako prestakuntza eta bazkide berriei zuzendutakoa.

2023an 75 pertsonak egin dute bazkide berriei zuzendutako formakuntza.



Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude.

16

BAKEA, JUSTIZIA
ETA INSTITUZIO
SENDOAK



GRI 205 — [205-2] [205-3]

GRI 2 — [2-29] [2-10]

Pertsonekiko konpromisoa

- Danobatgroupeko pertsonak
- Ordainsari elkartasuna
- Laneko osasuna eta segurtasuna
- Talentua erakartzea eta kudeatzea
- Prestakuntza eta garapen profesionala
- Dibertsitatea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Danobatgroupek aldezen duen proiektu sozioenpresarialean, pertsonak erdigunean kokatzen dira, enpresa proiektuarekin konprometituta dauden pertsonak, taldea eta Taldeko enpresak presente dauden lekuetan aberastasuna eta enplegua modu iraunkor eta jasangarrian sortzeko helburua partekatzen dutenak.

Horregatik, erakundea osatzen duten pertsonen garapen pertsonal eta profesionalerako konpromiso sendoari eusten dio, haien ongizatea eta enplegagarritasuna maximizatuz, beren onena eman dezaten.

Konpromiso hori talentua erakartzeko esparrura zabaltzen da, fabrikazio aurreratuaren sektoreak gaur egun dituen erronkei erantzuteko eta etorkizuneko beharrei aurrea hartzeko.

Gainera, Danobatgroupek pertsonen osasuna eta segurtasuna zaintzen duen ingurune bat sustatzen du, eta ordainsari elkartasunaren printzipioa aplikatzen du erakunde osoan, non dibertsitatea, diskriminaziorik eza eta pertsonen arteko aukera berdintasuna nagusitzen diren.

Danobatgroupek aurrera egiten du...



STEM bokazioak sustatuz eta emakumeen presentzia esparru honetan handiagotuz.



Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko neurriak hartuz.




Pertsonen etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua bultzatuz.



Lan ingurune segurua sustatuz.

Ekimen hauek bultzatu ditu:



Berdintasun planak taldeko enpresa guztietan.

2023an **online prestakuntza** bultzatu da, on-demand prestakuntza-plataformen eta prestakuntza-plan pertsonalizatuen bidez.



Danobatgroupen **batez besteko intzidentzia indizea** 13.45koa da, EAEko industria enpresen batez bestekoaren (63.04) oso azpitik.



13.45

Danobatgroupeko pertsonak


1462
Langile

1049
Euskadin

878
Bazkide kooperatibista



Enpleguaren bilakaera:



Enplegatuen kopuruak etengabeko hazkundera izan du azken urteetan, eta agerian geratu dira Danobatgroupek enplegua sortzeko, eta, bereziki, enplegu kooperatiboa sustatzeko egindako ahaleginak.

162 Emakumeak

1010 Lanaldi osoa
146 Emakumeak 864 Gizonak

939 Finkoak
143 Emakumeak 796 Gizonak

39 Lanaldi erdia
16 Emakumeak 23 Gizonak

110 Aldi baterako
19 Emakumeak 91 Gizonak

887 Gizonak

24% 30 urtetik behera
45 Emakumeak 206 Gizonak

59% 30 eta 50 urte bitartean
91 Emakumeak 527 Gizonak

17% 50 urtetik gora
26 Emakumeak 154 Gizonak

Informazio gehiagorako, ikus: 1. eranskina, GRI 2-7 Enplegatutak

Ordainsari elkartasuna

Bere balio korporatiboei jarraituz, Danobatgroupek ordainsari elkartasunaren printzipioa aplikatzen du erakunde osoan, eta, horren ondorioz, soldata tarte estua dago erantzukizun gutxien duten postuen eta goi zuzendaritzako postuen artean.

Printzipio horren bidez, lan ordainsaria nahikoa eta solidarioa dela adierazten da. Ordainsari eredu hori, langileak lanpostuan duen efizientzian eta errendimenduan oinarritua, eskatzen diren ezagutzak eta esperientzia, erantzukizuna eta lanpostu bakoitzean egin beharreko ahalegina kontuan hartzen dituen sistema objektibo baten gainean eraikitzen da.

Ordainsari politika hori berdin aplikatzen zaie erakundeko pertsona guztiei. Giza Baliabideen Batzordeak, Kontseilu Errektorearekin batera, pertsonen ordainsariei buruzko erabakiak onartzen eta hartzen ditu. Ordainsarien mapa etengabe berrikusten da, eta urtero egiten dira beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak eta hobekuntzak, antolaketa aldaketan edo pertsonen esleitutako erantzukizunen funtsezko aldaketan arabera.

Aldian behin, ordainsariaren analisi konparatiboak egiten dira beste enpresa batzuekin alderatuz, ordainsarien kanpo lehiakortasuna bermatzeko.



x 4,5

Danobatgroupeko langileen arteko gehieneko ordainsari aldea

Laneko osasuna eta segurtasuna

Danobatgroupek segurtasunarekin ez ezik, lan-ingurune osasungarriak sortzearekin ere konprometituta dago. Segurtasun fisikoaz gain, talde kooperatiboa oso inplikatur dago lan-ingurune osasun mentalaren kudeaketan.

Taldeko enpresa guztiek Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemak ezarri dituzte, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea betez, hura garatzen duen araudia betez eta ISO45001 arauaren irizpideekin eta Osasuna Zaintzeko Planarekin bat etorriz.



Intzidentzia indizea

13,45



Absentismo maila

5,2



Lan istripuagatiko lesioak

16

Informazio gehiagorako, ikus: 2. eranskina, GRI 403-9 Lan istripuagatiko lesioak eta GRI 403-10 Laneko gaitzak eta gaixotasunak


Laneko arriskuak prebenitzeko plana

Danobat, Soraluze eta Goimek enpresek AENORen ziurtagiria dute segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan (LAP).

LAP arloko funtsezko helburuak Danobatgroupeko enpresen 2021-2024 Plan Estrategikoetan jasotzen dira. Enpresa bakoitzean Arriskuak Prebenitzeko Batzorde bat dago, erakundearen funtzio desberdinak dituzten pertsonen osatua (zuzendaritza, ordezkariak, prebentzioko teknikariak eta zerbitzu medikoa). Batzorde hori planetan zehazten diren konpromisoak betetzen direla zaintzen duen organoa da. Batzorde horren bidez, prebentzio-ordezkariak kudeaketa-planaren jarraipena egiten dute, eta, oro har, segurtasunari eta osasunari lotutako guztiaren kudeaketan parte hartzen dute. Arriskuak Prebenitzeko Batzordeak lanpostu bakoitzari dagokion arrisku ebaluazioaren bidez egiten duen kudeaketari buruzko informazioa ematen die pertsonari. Era berean, laneko istripuen eta gertakarien ikerketaren emaitzaren berri ematen du, bai eta sistema hobetzeko hartutako ekintza zuzentzaileen berri ere.

Ezarritako protokolo eta mekanismoen bidez, gure enprekin interakzioan dauden kanpoko pertsonen segurtasun araudia betetzen dutela ziurtatzen da Taldeko instalazio guztietan.

Plan horren testuinguruan, 2023an, arrisku psikosozialak ebaluatzeko inkestak egin dira taldeko kooperatiba guztietan, arriskua detektatzeko, eraginpean dauden pertsonak identifikatzeko eta arriskua ebaluatzeko arrisku psikosozialeko faktoreak identifikatu eta neurtzeko, lehentasun-mailak ezarriz. Inkestaren ondoren emaitzak eta horren ondoriozko hobekuntza-plana 2024an zehar izatea espero da.



Osasun zerbitzu propioa

Danobatgroupek osasun zerbitzu propioa du, enpresako mediku batek eta erizain batek osatua. Besteak beste, Danobatgroupeko osasun zerbitzuak langileen osasuna zaintzen du. Zaintza lan horren barruan, 2023an honako hauek egin ziren:



Kontsultak

1603



Analitikak

769



Azterketa medikoak

722



Proba osagarriak

8

Lagun Aro, bazkideentzako babes sozialeko sistema

Lagun Aro borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde bat da, eta Taldeko enpresak bertako bazkide dira. Lagun Aroren zeregina da pertsonei babes sozialeko zerbitzuak ematea.

Lagun Arok estaldura sistema misto bat eskaintzen du. Zuzeneko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoaren prestazioak eskaintzen ditu, Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren bidez, erregimen horretan afiliatuta baitaude Danobatgroupeko pertsonak.

Lagun Arok prestazio hauek eskaintzen dizkie Taldeko pertsonei:

- Kapitalizazioko prestazioak. Horien artean, erretiroagatiko, baliaezintasunagatiko eta alarguntasunagatiko prestazioak nabarmentzen dira. Kasu horietan, Lagun Aroren prestazioak sistema publikoak ematen duena osatzen du. Horrela, onuradunek bi sistemetatik jasotzen dute prestazioa.
- Banaketako prestazioak. Langabeziagatiko laguntzari, aldi baterako ezintasunari (gaixotasun egoerak) eta osasun laguntzari lotutakoak dira. Lehenengo biek sistema publikoaren prestazioak ordezkatzeko dituzte, eta hirugarrenak mediku-asegurua pribatua eskaintzen die bazkide guztiei.



“Enpresa osasungarria” proiektua

Danobatgroupek urteak daramatza “Enpresa Osasungarria” proiektua lantzen. Proiektu horrek pertsonen osasuna hobetzea sustatzen du, horretarako hainbat ekintza eginez eta kolektiboari zuzendutako sentsibilizazio jardueretan oinarrituta.

Abian jarritako ekintzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:



Dieta osasungarria sustatzea: Informazio ekintzen bidez, sukaldeko buruari enpresako jantokietarako menu osasungarriagoen proposamenak eginez eta vending makinetan produktu osasungarriak sartuz.



Jantoki-zerbitzua Elgoibarren eta Bergaran: Jantoki propioa eta kooperatibaren instalazio berberetan izateak erraztu egiten du bazkaltzeko instalazioetatik kanpo joan beharrik ez izatea, bazkaltzeko denbora murriztuz.



Ariketa eta mugikortasun iraunkorra sustatzea, mugikortasun aktiboko neurriak sustatuz.

Atzerrira doazen pertsonentzako laguntza zerbitzua

Nazioarteko taldea denez gero, Danobatgroupeko langileak maiz joaten dira atzerrira lan arrazoiengatik. Ildo horretan, taldeak gaituta dauzka bidaia batean gerta litekeen edozein ezohiko egoerari estaldura emateko beharrezko mekanismoak, “Duty of Care” araudiak ezartzen duen bezala.

Zehazki, erakundeko bazkide guztiek bidaietan osasun laguntza izateko aseguru bat dute IMA Ibericaren bidez; bai eta laguntza medikoan, nazioarteko osasun arretan eta bidaietako segurtasun zerbitzuetan liderra den International SOSen zerbitzuak ere.

Osasunari eta segurtasunari buruzko prestakuntza eta komunikazioa

Osasunaren eta segurtasunaren arloko prestakuntza eta komunikazioa funtsezkoa da Danobatgroupentzat. Urtero, langileei prestakuntza ematen zaie arlo bakoitzak dituen osasun arriskuei, segurtasunari eta laneko praktika egokiei buruz. Suteak itzaltzeko eta lehen laguntzak emateko ikastaroak ematen dira, baita ongizatearekin eta enpresa osasungarriarekin lotutako hitzaldiak eta ikastaroak ere, hala nola erretzeari uzteko ikastaroak, mindfulness-ari buruzko prestakuntza, 59 urtetik gorakoentzako erretiro aurreko prestakuntza, edo bide segurtasunari buruzko ikastaroak, besteak beste.

Aurreko guztia sentsibilizazio kanpainen, barne komunikazioaren eta barne bileren bidez osatzen da.

Akribea proiektuari ekarpena

2021ean, Danobatgroupek Akribea proiektuarekin bat egin zuen. Proiektua, berez, Biozientzien Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC bioGUNE) gidatutako ekimen bat da, OSARTEN, Mondragon Unibertsitatea eta BIOBANCO Vasco erakundeekin laguntzarekin. Akribea proiektua medikuntza pertsonalizatu edo doitasunezkoan oinarritzen da, eta diagnostikoari laguntzeko datu base bat sortu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleria aktiboaren analititik abiatuta. Ikerketa honek bost urte irauten du, eta Danobatgroupeko langileen eta Mondragoneko beste kooperatiba batzuen lankidetzaren boluntario eta anonimoa du.



Talentua erakartzea eta kudeatzea

Danobatgroupek konpromiso irmoa hartua du bere erakundeko kide guztien garapen pertsonal eta profesionalarekin. Konpromiso horren bidez, pertsonak zaindu nahi dira, eta, aldi berean, haien enplegarritasuna ahalik eta mailarik handiengan mantendu.

Hori lortzeko, talentuaren kudeaketa estrategikoaren alde egiten du, giza kapitalak bere potentzial guztia garatu, bere asmoak bete eta helburuak lortu ahal izateko, eta aldi berean, kooperatibari bere erronkak betetzen laguntzen dio.

Talentuaren kudeaketa estrategikoaren barruan, Danobatgroupek proaktiboki lantzen du bere ekarpena, egungo beharrei zein fabrikazio aurreratuaren arloko etorkizuneko beharrei aurre egiteko. Horretarako, taldeak gazteen artean STEM ikasketak sustatzen dituzten ekimenetan parte hartzen du, unibertsitateekiko eta ikastetxeekiko akordio eta lankidetzak estrategikoak bultzatzen ditu, eta marka enplegatzaile gisa sustatzen da besteak beste.

Talentua erakartzea

Fabrikazio industrialaren sektorea aldaketa sakonen prozesuan murgilduta dago, teknologia berriak sartu baitira. Testuinguru horretan, Danobatgroupek etengabeko erronkei aurre egiteko gai izango diren profesional berriak behar ditu.

Gazteekin duten elkarreragina etengabea da prestakuntza-prozesu osoan, eta elkarreragin hori Danobatgruppen nortasun-ezaugarria da. Horri esker, inguruko gazteek ikasketak amaitzean Danobatgruppen sartzea positiboki baloratzea lortzen du taldeak.

Talentua erakartzeko ekintza zuzenak

Danobatgroupek marka enplegatzaile gisa sustatzen du bere burua, enplegu azoketan parte hartuz; zentro, eskola eta unibertsitateetarako bisitak antolatuz; web korporatiboan, sare sozialetan eta enplegu plataformetan (Infoempleo, LinkedIn eta Mondragon People, esaterako) enplegu eskaintzak etengabe sustatuz eta datu base korporatiboan izena emana duten eta Danobatgruppen lan egiteko interesa adierazi duten pertsonen hileko newsletter-ak helaraziz. Baina, batez ere, bertako pertsonen egiten duten enbaxadore-lanari esker sustatzen da marka, Danobatgruppen zer egiten duten eta nola lan egiten duten beren ingurukoei kontatzean.

2023ari buruzko datu batzuk:

Enplegu azokak

7

Lan eskaintzen hileko newsletter-era harpidetuta dauden pertsonak

+5000

Akordio eta lankidetzak estrategikoak

Fabrikazio industriaren beharrei aurrea hartzeko, Danobatgroupek harreman sendoak eraikitzen ditu hezkuntza komunitatearekin, talentuaren espezializazioa eta profesionalizazioa helburu.

Danobatgroupek lankidetzak eta aliantza hitzarmenak ditu ingeniartzaren arloan Euskadiko erakunde akademiko nagusiekin. Gainera, horrela, taldeak bere konpromiso sozialarekin bat datorren hezkuntza eta dibulgazio funtzioa betetzen du.

Aliantza horien helburua da komunitate akademikora hurbiltzea, enpresak prestakuntza prozesuetan parte har dezan bultzatzea, eta tituludun berriek lehentasun gisa ikustea beren karrera profesionala industria sektorean garatzea; izan ere, sektore horrek oso langile espezializatuak eskatzen ditu, eta gauza erakargarri asko eskaintzen ditu, nahiz eta horiek ez diren beti agerikoak graduatu berrientzat.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzak estrategia horren ondorio dira hainbat erakunde akademikoekin sinatutako hitzarmenak, hala nola UPV/EHUrekin, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Eskolarekin (Tecnun), Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Makina Erremintaren Institutuarekin. Hitzarmen horien bidez, laguntza eta harreman mekanismoak lantzen dira, azken batean talentua makina-erremintara hurbiltzea ahalbidetzen dutenak.

Prestakuntzan laguntzea, prestakuntza dualaren, praktiken, karrera amaierako/masterreko proiektuen eta alternantzien bidez

Danobatgroupek ikasleak industria munduan integratzea sustatzen du, formatu dual desberdinen bidez. Ildo horretan, pertsona askok praktikak egiten dituzte, modalitate dualean trebatzen dira, edo gradu amaierako zein masterreko lanak egiten dituzte Taldeko enpresetan. 2023an, 50 pertsonak baino gehiagok jaso dute prestakuntza Danobatgruppen, dauden formulen bidez.

STEM ikasketekiko interesa areagotzea

Ekoizpen prozesuak digitalizatzeko prozesuak eta fabrika adimentsuek dakartzaten erronkek profil profesional berriak eskatzen dituzte, diziplina askoko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak uztartuko dituzten profil profesionalak, hau da, STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) izenez ezagutzen dena duten profesionalak.

Danobatgroupek fabrikazio industriaren beharrei aurrea hartzearen alde egiten du, gazteen artean bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatuz eta emakumeengan arreta berezia jarriz. Danobatgroupek badaki emakumeek zientzia, teknologia eta ikerketa karrerarako sarbidea izatea sustatzea funtsezkoa dela industria sektorearen jasagarritasunerako, produkzio sarearen lehiakortasunerako eta berrikuntza bultzatzeko.

Horretarako, STEM bokazioak eta erreferenteak sortzea sustatzen duten proiektu batzuetan parte hartzen du, emakumeek arlo zientifiko eta teknologikoetan egiten duten ekarpena agerian utziz eta gazteentzat inspirazio iturri izango diren erreferenteak sortuz.

Besteak beste, taldeak programa hauetan parte hartzen du:

Elgoibarko Zientzia Azoka

Elgoibarko Udalak, ikastetxeek, enpresek eta herriko zenbait eragilek antolatutako ekitaldia, zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzeko eta Elgoibarko haur eta gazteen artean kultura zientifikoa areagotzeko.

**Bizilabe**

Elhuyar Fundazioak 10 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da, eskola programaren zurruntasunetik kanpo, gazteok teoriak eta esperimenduak garatzera bultzatzen dituena. Autonomia, sormena eta independentzia sustatuz, zientzia eta teknologiarekiko grina pizten da adin goiztiarretan.

**ZTIM HUB**

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Huhezi buru dituen proiektua, enpresa sarearen eta hezkuntza sektorearen arteko lankidetzaren bidez STEM bokazioak sustatzeko, zientzia, ingeniaritza, teknologia eta matematikarako espazioak sortzeko asmoz.



TFG/TFM Mondragon sariak

Mondragon Korporazioak sustatuta, gradu amaierako edo masterreko proiektua egin duten edozein unibertsitatetako ikasleek XXI. mendeko erronkei erantzuteko ekarpen berritzaile eta jasangarria egiten duten lanak aintzatetsi nahi dira. Zehazki, Danobatgroupek Eraldaketa Digitalaren Saria babesten du, eraldaketa digitala bizkortzeko eta industriaren lehiakortasuna sustatzeko bi proposamen onenei zuzendua.



Mondragon City Challenge

Gazteen artean ekintzailetzaren kultura eta balio kooperatiboak sustatzeko nazioarteko txapelketa. Ekimena El Diario Vasco egunkariak, Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Mondragon Korporazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak antolatzen dute.




FIRST® LEGO® League (FLL)

2023an, Danobatgroupek lan egin du 4 eta 16 urte bitarteko gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzen dituen nazioarteko hezkuntza-programa honekin 2024rako lankidetzat bat ezartzeko. Programa honek dagoeneko 250.000 gazte inspiratzen ditu 90 herrialdetan, eta esperientzia praktikoa eta dibertigarrietan oinarritzen da, mundu errealeko arazoak konpontzeko eta etorkizun hobeak eraikitzen laguntzeko.



Emakume teknologoari zuzendutako Ada Byron Sariak babestea

Deustuko Unibertsitateak emakume teknologoei urtero ematen dien saria, beren ibilbide bikaina ikusarazteko.



Gladys sariak babestea

Emakume profesionalak ingurune digitalean egiten duten lana aintzatetsi eta haien lana ikusarazten duen saria da; aldi berean, gazteentzako erreferenteak sortzen dira informatikaren arloan. PuntuEUS Fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearen ekimena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoaren eta Emakunderen babesa du.



IMH sariak

IMH Campuseko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak banatzen dituen sariak Lanbide Heziketako ikasketak balioan jarri eta gizarteari egiten dioten ekarpena nabarmentzeko.



Talentuaren kudeaketa

Danobatgroupek badauzka enpresa talde handiek eskaintzen dituzten abantailak eta aukerak (enpresa sendotasuna, barne mugikortasuna, karrera planak, etab.), enpresa ertainen abantailekin osatzen direnak, hala nola pertsona bakoitzarengandik oso hurbil dagoen tratua eta arreta, parte hartzea, etab.

lido horretan, taldeak uste du merkatura jo aurretik erakundean lehendik dagoen talentua garatu eta sustatu behar dela. Bere lantaldeek duten potentziala oso handia da, eta hori maximizatuko duen sistematika bat egituratu behar du, batetik, pertsonen garapen profesionala sustatzeko, eta, bestetik, antolaketa erronkei aurre egiteko, ahal dela, erakundeko kide diren pertsonekin.

Aurrekoarekin bat etorritik, Danobatgroupek barne sustapena lehenesten duen politika bati jarraitzen dio. Hau da, kanpoko pertsonak sartu aurretik, plantillan daudenei ematen zaie aukera. Era berean, plantillako pertsona guztiei aktiboki galdetzen zaie zein diren beren helburu profesionalak, ahal den neurrian, erakundearen barruan aukerak sortzen diren bakoitzean horiek kudeatzen saiatzeko. Talentua eskas dabilen honetan, lehendik dauden gaitasunen garapena sustatzeko politikak eta mekanismoak lantzea lehiarako abantaila argia da.

Barne sustapena bultzatzeaz gain, talentua eraginkortasunez kudeatzeko, Taldeak egiten dituen ekintza hauek nabarmendu behar dira:

- 2017. urteaz geroztik, talentua kudeatzeko programa batekin lan egiten da, eta programa horren barruan sartzen dira garapenerako elkarrizketak, jardunaren eta potentzialaren ebaluazioak, Bottom Up ebaluazioak, Talent Reviews direlakoak, eta asmoen kudeaketa.
- Langileen esperientzia maila guztietan kudeatzen da: komunikazioa, garapen profesionala, kudeaketan parte hartzeko mekanismoak eta erakundearen emaitzen erantzukizuna.
- Badago onboarding prozesu optimizatu bat (lehen 90 egunak): harrera plana, prestakuntza plana egitea profilen arabera, aldizkako jarraipen bilerak, etab.
- Pertsona bakoitza bere garapenaren arduraduna izateko kultura bultzatzen da, eta arduradunek beren lantaldeen garatzaile rol berria hartzen dute.
- Banakako garapen planak egiten dira, pertsonen kezkak/itxaropenak abiapuntu gisa hartuta.
- Nazioarteko erakundeekin lankidetzan jarduten da, pertsonen trukea eta atzerriko egonaldiak ahalbidetzeko, prestakuntza duten pertsonak atzerriko lantegietara lekualdatzeko helburuarekin.



2023an barne mailan argitaratu ziren

30
Lanpostu

Prestakuntza eta garapen profesionala

Danobatgroupek konpromiso argia hartua du erakundeko pertsonen garapen profesionalarekin, bakoitza bere enplegarritasunaren jabe eta protagonista dela premisatzat hartuta eta prestakuntzaren ekimena pertsona bakoitzaren esku utzita. Horregatik, Taldeak bere profesionalen etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egiten du lan bizitza osoan zehar.

Datozen urteetan, digitalizazioa, deskarbonizazioa eta halako joera globalek lehendik existitzen diren lanpostu asko eraldatzea eskatuko dute. Testuinguru horretan, eragindako pertsonak berriz kualifikatzeko prozesuak identifikatzea eta horiek sustatzeko modua egituratzea izango dira lehentasun nagusietako batzuk.

Era berean, bere jardueraren nazioartekotze maila handiari erantzuteko, Danobatgroupek atzerriko hizkuntzen etengabeko ikaskuntza sustatzen du, eta aurrez aurreko eta online hizkuntza ikastaroak jartzen ditu langileen eskura, interesen bat erakusten duten guztientzat.

Urteko batez besteko formakuntza-orduak pertsonako

31,82

Gaur egun, Danobatgroupek honako ekintza hauek egiten ditu prestakuntzaren arloan.

- Urteko Prestakuntza Plana eta/edo Banakako Garapen Planak. Bi programek trebetasun teknikoetan eta jarrerazko gaitasunei lotutako soft skill-etan jartzen dute fokua.
- LinkedIn Learning eta halako plataformen bidez ikasteko lizentziak eskuratzeko interesa duten pertsona guztientzat eskuragarri. Horrela, pertsona bakoitzak interesgarritzat jotzen dituen arlo guztietan jaso dezake prestakuntza, baita betetzen duen lanpostutik kanpo ere, norberaren interesa arrazoi bakarra izanda ere.
- Zeharkako prestakuntza-garapenak, bai departamentu mailan, bai erakunde osoan (trebetasun digitalak, zibersegurtasuna, hizkuntzak, pertsonen kudeaketa, lan arriskuen prebentzioa, etab.).
- Pertsona bakoitzaren garapenerako beharrezkoak eta arrazoizkoak diren prestakuntza ekintzen autokudeaketa.



Informazio gehiagorako, ikus: 3. eranskina, GRI 404-1 Urteko prestakuntza orduak batez beste langile bakoitzeko

Euskararen normalizazioa

Hastapenetatik, Danobatgroupek sentsibiltate berezia erakutsi du euskararekin eta euskal kulturarekin, eta pertsonak, hala nahi izanez gero, beren hizkuntzan lan egin ahal izatea sustatu du.

20 urte baino gehiago dira Danobatgroupek bere enpresa batean lehen euskara plana ezarri zuenetik, eta harrezkero Taldeak euskararen erabilera areagotzeko urratsak egiten jarraitu du, pertsonak gero eta euskara gehiago jakiteko motibatuz.

Era berean, Danobatgroupek euskara sustatzeko bere inguruan egiten diren hainbat ekimenetan parte hartzen du, memoria honetan konpromiso sozialari buruzko 7. ekarpenean aipatzen den bezala, eta ekimen sozial horietako askoren sustatzaile ere bada.

%100

Danobatgroupeko enpresen %100ek euskara planak dauzkate.

211.299€

gastua euskara planetan 2023an.



Danobatgroupeko enpresa guztiek BIKAIN kalitate ziurtagiria daukate hizkuntza kudeaketan, Eusko Jaurlaritzak emana.

EUS

Aktiboki parte hartzen da organo hauetan: **Mondragoneko Euskara Batzordea, Euskaragileak eta INDEUS.**



Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) esparruan euskara aberastu eta sustatzeko eta herritarrak jasangarritasunaren garrantziaz kontzientziazteko asmoz, 2023an Danobatgroupek Agenda 2030eko Hiztegi Eleanitza (euskara, gaztelania eta ingelesa) argitaratu du Elhuyarrek eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.



Dibertsitatea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Makina-erremintaren sektorea eta, oro har, Danobatgroupeko bezero enpresek jarduten duten sektoreak, maskulinizatuta egon dira tradizionalki. Hala ere, Danobatgroupek irmoki uste du espazio inklusiboak eta bereziki genero berdintasuna sustatuko duten kulturak bultzatu behar direla, bai eta pertsonen dibertsitatearen -zentzu zabalenean- errespetua eta integrazioa ere.

Konpromiso hori bai antolaketaren barne dimentsioan bai gizartearekiko harremanean proiektatzen da.

Danobatgroupek pertsona guztientzako aukera berdintasunean sinesten du, eta sinesten du adin, genero eta arraza etab. desberdinek Taldeko enpresen jarduera funtsezko eran aberasten dutela, eta, beraz, sortzen duten inpaktu positiboari ezin zaiola uko egin. Ildo horretan, generoen arteko soldata-arrakala murrizteko urratsak egiten ari da Taldea.

Horregatik, 2020az geroztik, berdintasun planak aktibatuz joan dira Taldeko enpresetan, hala legez behartuta daudenetan nola behartuta ez daudenetan. Gainera, batzorde espezifikoak jarri dira martxan, planetan planteatutako helburuak gauzatzeko.

Danobatgroupek berdintasuna, dibertsitatea eta berdintasunaren kultura ere bultzatzen ditu bere ingurunean. Ildo horretan, Taldeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duten ekimenetan laguntzen du, bereziki STEM arloan, hala nola Ada Byron eta Gladis sariak babestuz.




**Soldata arrakala
Danobatgroupeko
enpresa guztientzat**

10,22


*Gizonen eta emakumeen batez besteko soldataren arteko aldea, gizonen batez besteko soldatarekin banatuta.

**Erabaki organoetan
dauden emakumeen
batez bestekoa
emakumeen batez
besteko orokorra baino
handiagoa da.**



%15,44

Emakumeen
batez besteko totala



%18,68

Erabaki organoetan dauden
Emakumeen batez bestekoa



Gobernu organoak

91

Pertsonak
gobernu organoetan

74 - %81,32 Gizonak



17 - %18,68 Emakumeak



30 urtetik beherakoak




30-50 urte



30 urte baino gehiago



Pertsonak lan kategoriaren arabera



Pertsonak


887 - %84,56 Gizonak



162 - %15,44 Emakumeak









30 urtetik beherakoak



30-50 urte



30 urte baino gehiago



Informazio gehiagorako, ikus: 4. eranskina, GRI 405-1
Dibertsitatea gobernu organoetan eta enplegatuetan

Berdintasun eta Dibertsitate Plana

Danobatgroupeko enpresa guztiek berdintasun plan bat daukate, berdintasun batzorde bat negozio bakoitzean, eta talde mailako batzorde bateratu bat politika orokorrak definitzeko, baita Danobatgruppen benetako berdintasuna gauzatzeko ekimenak aktibatzeke eta politikak ezartzeko ere. Halaber, ezagutzak eta esperientziak partekatzeko helburuz, Mondragon Korporazioaren genero berdintasunerako foroan parte hartzen da.

Plan horien bidez, Danobatgroupek eta bere negozioiek aurrera egiten dute berdintasuna eta dibertsitatea jardura eta espazio guztietan integratzeko, genero ikuspegiaren bitartez pertsonen kudeaketa hobetzeko, komunikazio ez-sexista sustatzeko eta kolektiboa berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko, pertsonen begirada dibertsiboagoa eta inklusiboagoa emate aldera.

Plan horien bidez lantzen diren ekintzak asko dira eta oso anitzekoak. 2023an, honako hauetan egin da aurrera:

- Danobatgroup osoarentzat berdintasunaren eta aniztasunaren arloko politika komuna onartzea eta zabaltzea.
- Berdintasunean sentsibilizatzea eta prestatzea.
- Bisitak antolatzea beste kooperatiba batzuetara, esperientziak eta ezagutza partekatzeko berdintasun-praktikei dagokienez
- Genero-ikuspegia hainbat kudeaketa-mailatan txertatzea.
- Gataskaren eta jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa berrikustea eta eguneratzea, memoria honen 04 atalean jada aipatua, erantzuleen izendapenari dagokionez eta azken lege-aldaketetara egokitzeari begira funtsezko hobekuntzak sartuta.
- Datuak sistematizatzea urtero soldata-arrakalekin lotutako datuak lortzeko eta horiek murrizteko ekintzak aktibatzeke.
- Kontziliazio neurriak maximizatzea eta horiei buruzko informazioa ematea.
- Erantzukizuneko lanpostuetara iristeko aukera berdintasuna bermatzea.
- Gazteen artean STEAM bokazioak bultzatzea.
- Kanpoko harremanetan berdintasuna bultzatzea.



Lana eta familia uztartzea

Danobatgroupek aurrera egiten jarraitzen du, eta erronka berriak ezartzen. Onartzen du zaila dela erakunde igualitario bat lortzea, kontziliazio mekanismo egokiak errazten ez diren bitartean. Kontziliazioa ahalbidetzeko politika eta ekintza zehatzak formulatzea eta ezartzea betebeharra eta lehentasuna da Danobatgroupentzat.

Danobatgroupen lan egiten duten pertsonen ongizate globala eta haien familia erakundearentzat funtsezko faktorea da.

Taldea beti punta-puntakoa izan bada ere malgutasun eta kontziliazio mekanismoak ezartzen, azken urteetan aurrerapausoak egiten jarraitu da, arlo horretan lege eskakizun guztiak zorrotz betez. Hala nola:

- Ordutegi murriztuen malgutasuna eta borondatezko ordutegi bereziak ematea maximizatu da.
- Taldeko kooperatiba batzuetan ostiral arratsaldeetan jai hartzeko aukera eman da.
- Telelana egiteko aukera eman da.

Azken batean, neurri horiekin eta beste batzuekin, Danobatgroupek bere erakundeko pertsonentzako balio proposamena handitu nahi du, kontziliaziorako aukerak hobetuz eta, horiek bultzatuz, erakundearen berdintasuna ere hobetuz.

2023an kontziliazio neurriak erabili dituzten pertsonak:

Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatzeko eskubidea izan duten langileen kopurua guztira:



Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatu duten langileen kopurua guztira:



Txostenaren xede den aldian jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren langileen kopurua guztira:



Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren eta lanera itzuli eta 12 hilabetera enplegatuak izaten jarraitzen zuten langileen kopurua guztira:



2023an jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena hartu zuten langileen itzulera eta atxikitze tasak:

Itzulera tasa:



Atxikipen tasa:



Diskriminaziorik eza eta dibertsitatearen kudeaketa

Danobatgroupek integratuta dauka diskriminaziorik eza bere prozesu guztietan premisa gisa, langile guztientzako ordainsari politika igualitarioen bidez edo nazionalitate desberdinetako pertsonak kontratatuz, adinagatik, arrazagatik, generoagatik, sexu joeragatik eta erlijioagatik inor baztertu gabe.

Prozedura horiek egitate zehatzetan gauzatzen dira, esaterako, lanpostu baterako hautagaien profiletan (CV) diskriminaziorako erabil daitekeen datu oro ezabatzea.



Halaber, aipatu behar da Taldearen instalazioak egokiak direla eta desgaitasunen bat duten pertsonen egokituta daudela, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak betez.

Informazio gehiagorako, ikus: 5. eranskina, GRI 401-3 Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena

Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude.



GRI 2 — [2-7]

GRI-401 — [401-3]

GRI-403 — [403-1] [403-2] [403-3] [403-4] [403-5] [403-6] [403-9] [403-10]

GRI-404 — [404-1] [404-3]

GRI-405 — [405-1]

GRI-406



Klimarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa

- Ingurumena kudeatzeko sistema
- Ekonomia zirkularra eta prebentzioa eta hondakinen kudeaketa
- Baliabideen erabilera jasangarria
- Klima aldaketa eta kutsadura prebenitzeko eta murrizteko neurriak
- Biodibertsitatea babestea
- Produktuen ingurumen inpaktua

Danobatgroupek bereizi egin nahi ditu bere karbono aztarna eta hazkunde ekonomikoa. Anbizio handiko helburua da, eta epe luzera baino ezin da lortu. Taldeak badaki hori lortzeko epe laburrean ere lan egin behar duela, banaka eta taldeka, pausoz pauso helbururantz aurrera egiteko.

Hala, Taldearen apustua izan da jatorri berriztagarriko energia erabiltzea, iturri berriztagarrietako energia autosortzea eta efizientzia energetikoa hobetzea. Era berean, beste ekintza batzuen artean, irizpide energetikoak eta ingurumena errespetatzeko irizpideak sartzen ditu produktuen diseinuan eta garapenean, eta horrek aukera ematen du bizi ziklo osoan ingurumen inpaktua murrizteko.

Danobatgroupek aurrera egiten du...



Ingurumena kudeatzeko sistema

Taldeko enpresa garrantzitsuenean, 2002az geroztik, ISO 14001 arauaren arabera egindako eta ziurtatutako IKS (Ingurumena Kudeatzeko Sistema) bat daukate, Elgoibar, Itziar, Mallabia eta Bergarako instalazioetako jarduera guztiak hartzen dituen. Ziurtagiri propiorik ez eduki arren, Taldeko gainerako enpresek dagoeneko ziurtatuta dauden enpresen ingurumen kudeaketako sistema aplikatzen dute. Jarduteko irizpide orokorra ardura printzipioan oinarritzen da, prebentziozko ikuspegi baten bidez.

Danobaten ISO 14001, ingurumena Kudeatzeko Sistema, Energia Kudeatzeko Sistemarekin osatzen da, ISO-50001 Arauaren arabera ziurtatua, eta erakundearen karbono-aztarnaren kalkuluaren egiaztapena du, ISO 14064 eta GHGren arabera.

Soralucen, produktua diseinatzeko eta garapen prozesuak kudeatzeko sistema (ekodiseinua) ISO 14006 arauaren arabera ziurtatuta dago.

Sistema hauek, Kalitatea Kudeatzeko Sistemarekin (ISO 9001 arauaren arabera ziurtatua) eta Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemarekin batera (ISO 45001 arauaren arabera ziurtatua), Kudeaketa Sistema Integratua osatzen dute. Kudeaketa sistema horien kudeaketa operatiboa kudeaketa sistemen departamentuak egiten du, Zuzendaritzak izendatutako pertsonak gainbegiratuta.

Taldeko Enpresen Kudeaketa Politika Integratua dagozkion webguneetan argitaratuta dago, eta horietan agerian geratzen da ingurumena errespetatzeko konpromisoa, produktuen eta jardueren ingurumen eta energia inpaktua minimizatzea eta betiere prebentzio printzipioaren pean jardutekoa; hori guztia etengabeko hobekuntzako ingurune baten barruan.

Politika horrek erreferentzia argia egiten die berotegi efektuko gasen emisioei, karbono aztarnari eta hornidura jasangarriari.

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak, eta baita Danobateko Sistema Energetikoa eta Soraluzekeko Ekodiseinu Sistema ere, urtero ikuskatzen ditu AENORek. Aipatzekoa da azken 5 urteetan ez dela desadostasunik antzeman horietan.

Taldeko enpresek ingurumen alderdi garrantzitsuen erregistro bat daukate, hala nola “hondakinak”, “atmosferaarako emisioak”, “ura”, “zarata”, “substantzia arriskutsuak”, “baliabide naturalen kontsumoa” eta “lurzoruen kutsadura”. Alderdi horiek urtero ebaluatzen dira. Ingurumen alderdi garrantzitsuen ebaluazioa egin ondoren, inplementatu beharreko ingurumen programa zehazten da. Gaineratu behar da ingurumen alderdi garrantzitsuen erregistroek, gehienetan, hobekuntzak islatzen dituztela adierazleetan.

Taldearen jardueraren izaeragatik, ingurumenean eragindako inpaktua neurritzakoa da. Hala ere, Danobatgroupek ez dio uzten identifikatutako ingurumen alderdien adierazle guztiak etengabe hobetzeko kudeaketari.

**UNE-ISO
14001**

Ingurumena kudeatzeko sistema

**UNE-ISO
14006**

Produktua diseinatzeko eta garapen prozesuak kudeatzeko sistema (ekodiseinua).

**UNE-ISO
50001**


Energia Kudeatzeko Sistema.

**UNE-ISO
14064**

**GHG
Protocol**

Karbono aztarna egiaztatuta.

Ondoren, ingurumena kudeatzeko sistemarekin eta ingurumen arriskuen prebentziora bideratutako baliabideekin lotutako datu garrantzitsu batzuk erakusten dira:



Informazio gehiagorako, ikus: 6. Eranskina, KSari egotzitako zuzeneko gastuak

Hondakinen kudeaketa eta ekonomia zirkularra

Hondakinak eraginkortasunez kudeatzea lehentasuna da taldeko enpresa guztientzat. Ingurumena kudeatzeko sistemaren barruan eta indarrean dagoen legeria betez, makinaria fabrikatzea jarduera nagusia duten Taldeko enpresek hondakinak kudeatzeko sistema bat dute ezarrita, hondakinen hiru aldaerak arautzen dituena: arriskutsuak, ez-arriskutsuak eta hiri hondakinekin pareka daitezkeenak.

Hondakin mota bakoitza behar bezala bereizteko jarraibide teknikoak daude, batez ere hondakin arriskutsuak bereizteko; izan ere, horiek biltzeko sistema propio bat daukate, horretan trebatuta dauden eta esperientzia duten pertsonen egina. Hondakin horiek, ondoren, behar bezala baimendutako kudeatzaileen bidez kudeatzen dira.

Hondakin ez-arriskutsuei eta hiriko hondakinekin parekatu daitezkeenei dagokienez, badaude horiek bereizteko eta bakoitza bere aldetik biltzeko sistemak, edukiontzi egokiekin, papera eta kartoia trinkotzeko sistemekin eta hondakin horiek birziklatzeko edo balioztatzeko baimendutako kudeatzaileekin.

Taldeak urtero handitzen du hondakinen birziklatze tasa, ez bakarrik industria hondakinak, historikoki jada birziklatzen zirenak, baita hiri hondakinekin pareka daitezkeenak eta pertsonen jarduerarekin lotuago daudenak ere. Hondakinen bereizketa eta osteko birziklapena hobetzeko beste urrats bat da hori, zabortegeian buka dezaketen hondakinak minimizatzeke.

Era berean, ekonomia zirkularraren esparruan, taldeak Biziberritu ekimenarekin kolaboratu du 2023an. Ekimena hainbat hezkuntza-eragilek, udalek eta enpresak osatzen duten sarea da, eta enpresen soberako materialari bigarren bizitza bat ematera bideratuta dago, eskoletako hezkuntza-eskaintza aberasteko, material horiekin esperimentatuz eta jokatuz.

Informazio gehiagorako, ikus: 7. eranskina, GRI 306-3 Sortutako hondakinak, 306-4 Ezabatzea xede ez duten hondakinak eta 306-5 Ezabatzea xede duten hondakinak


Ondoren, Danobatgruppen EAeko lantegien jardueraren ondorioz sortutako hondakin esanguratsuenen bolumena adierazten da.

Hondakinak


Hondakin arriskutsuak




Ur oliotsu emulsionatuak



Kutsatutako ontzi kimikoak




Leuntze lohiak




Hondakin ez-arriskutsuak




Txatarrak



Enbalajeen hondakinak: kartoia, plastikoa eta zura




Sailkatu gabeko hondakin ez-arriskutsuak




Hirikoekin pareka daitezkeen hondakinak



Ontzien hondakinak



Hondakin organikoak



*Industria-nabeetako berrikuntzekin lotutako hazkundera

Baliabideen erabilera jasangarria

Baliabideen erabilera jasangarria sustatzea lehentasun argia da ingurumen politikan, eta arreta berezia jartzen du produktuen bizi ziklo osoan lehengaien eta gainerako materialen erabilera murriztean eta, gainera, energia kontsumoa murriztean, efizientzia energetiko handiagoa lortzeko neurriak abian jarrita.

Taldeak erabiltzen dituen baliabideak honela banatzen dira: energia (gasa eta elektrizitatea), ura eta jarduera egiteko beharrezkoak diren lehengaiak.

Eskuratutako lehengai gehienak taldearen negozioiek fabrikatzen dituzten produktuetan txertatzen dira, eta, ondorioz, haien kontsumoa zuzenki proportzionala da proiektuen diseinutik, fabrikaziotik eta saldu osteko zerbitzutik eratorritako premiekiko.

Gainera, urtero ingurumen alderdiak identifikatu, erregistratu eta ebaluatu egiten dira, elkartutako inpaktuak zehazteko eta bizi zikloaren ikuspegitik haien garrantzia norainokoa den ikusteko. Alderdi horietako bakoitzaren magnitudea eta arriskugarritasuna zehazten dira, eta haien garrantzi maila norainokoa den ikusten, dagozkion ekintzak egiteko.




Ur kontsumoa

Uraren kontsumoari dagokionez, ez da garrantzitsutzat jotzen Taldearen jarduerarako. Ura komunetan, jantokian, lurzoruak garbitzeko ekortze makina industrialetan eta proiektuetan jasotako ebaketa hozgarriak sortzeko erabiltzen da. Etengabe monitorizatzen da kontsumoa, eta abisu alarmak daude bolumenak gaindituz gero edo aurreikusitako ordutegitik kanpo kontsumituz gero.

2021ean ez zen sukalde eta jantoki zerbitzurik egon (Covid); beraz, ezin da konparatu.



Ur kontsumoa (m³)



Informazio gehiagorako, ikus: 8. eranskina, GRI 303-5 Ur kontsumoa.

Gas eta elektrizitate kontsumoa, eta efizientzia energetikoa

Gas eta elektrizitate kontsumoei dagokienez, energiaren erabileren kontrol zorrotzak egiten dira. Berokuntza sistema osoa, batetik, eta argiztapen sistemak eta erabilera desberdinetarako energia kontsumoak, bestetik, etengabe monitorizatzen dira Taldeko enpresa gehienetan. Lortutako datuek hobera egiteko ekintzak gauzatzeko aukera ematen dute.

Azken urteotan, Danobatgroupek hainbat erreforma egin ditu bere instalazioetan, eta horrek hobekuntza garrantzitsuak ekarri ditu, bai pertsonen ongizaterako, bai efizientzia energetikorako.

Duela urte batzuetatik hona, ingurumenaren arloan eragin nabarmena duten hainbat erreforma egin dira, batez ere gasaren eta energia elektrikoaren kontsumoari dagokionez (aire konprimituaren ihesak detektatzeko eta ezabatzeko sistema; LED bidezko argiztapena, argiaren araberako erregulazioarekin; berokuntza eta argiztapen sistemaren monitorizazioa eta kontrola, kudeaketa eraginkorra eta kontsumoaren murrizketa ahalbidetuz).

2023an hobekuntza horiekin jarraitu da, gazezko berokuntza-sistemaren ordezkari klimatizazio-sistema eraginkorragoa ezarriz, eta, ondorioz, 500.000 kWh baino gehiago aurreztu da gas-kontsumoan.

Horrez gain, Soralucek 2023an ikuspuntu iraunkorretik diseinatutako muntaketa planta berri bat inauguratu dut, urrezko LEED "Leadership in Energy & Environmental Design" ziurtagiria duena.

Duela urte batzuetatik Danobatgroupeko enpresek panel fotovoltaikoak jarri dituzte eraikin gehienetan; 2023an, instalakuntza gehiagotan ezartzen jarraitu da, eta datozen urteetan instalazio berriekin jarraitzeko asmoa dago.

Gainera, 2023an milioi bat eurotik gorako inbertsioa egin da taldeko instalazioetatik kanpoko eguzki-baratze batean, 2025erako aurreikusita dagoen energia berriztagarri hori eskuratzeko.


Ekintza konbinatu horiek taldeak kontsumitutako energia berriztagarriaren heren bat autogeneratzea lortzeko diseinatuta daude, eta, horrela, iraunkortasunarekiko eta karbono-aztarnaren murrizketarekiko konpromiso etengabea markatzen da.

Ondoren, Danobatgroupeko EAeko instalazioetako kontsumoei buruzko datu esanguratsu batzuk adierazten dira.

Energia kontsumoak (kWh)




Energia elektrikoa



Gas naturala



Energia elektrikoaren kontsumoak 2023an



20%
1.646.836 kWh
Berriztagarria

80%
6.736.917 kWh
Ez-berriztagarria

Informazio gehiagorako, ikus: 9. eranskina, GRI 302-1
Energia kontsumoa erakunde barruan

Lehengaien kontsumoak

Lehengaien kontsumoari dagokionez, azpimarratu behar da material berriztagarrien eta ez-berriztagarrien erabilera murrizteko neurriak hartu ditugula, behar ditugun kontsumoen kopurua optimizatzeko.


Eguneroko jardueran erabilitako paper eta toner kantitatea murrizteko helburuarekin, duela urte batzuetatik hona badago funtzio anitzeko ekipo modernoek eta inprimagailuen sare bat, lehenespenez zuri-beltzeko eta alde biko inprimaketarako konfiguraziotan gain, atzerapenez ere inprimatzen duena, nahi ez diren lanak bertan behera uzteko aukera izateko. Neurri horiei esker, paper kontsumoa %30 inguru murriztu da.

Era berean, Taldeak askotariko jarduerak jarri ditu abian taladrinaren kontsumoa txikitzeko. Muntaketa lantegien antolamendua, ordena eta garbitasuna hobetzeko taldea sortu da, taladrinak eraginkortasunez erabiltzeko, eta Goimek-en taladrina murrizteko plan bat jarri da martxan, gutxieneko kantitateen arabera lubrikazio-sistemaren bidez (MQL, «Minimal Quantity Lubrication»).


Ondoren, kontsumoen beste adierazle esanguratsu batzuk aurkezten dira.

Berriztagarriak


Lehengaiak (metalak)




Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)



Enbalatzeko materialak




Berriztagarriak guztira




Berriztaezinak


Lehengaiak (metalak)




Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)



Enbalatzeko materialak




Berriztaezinak guztira



Guztira


Lehengaiak (metalak)




Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)



Enbalatzeko materialak



Guztira



Informazio gehiagorako, ikus: 10. eranskina, GRI 301-1 Materialen eta lehengaien kontsumoa

Klima aldaketa eta kutsadura prebenitzeko eta murrizteko neurriak

Danobatgroupek etengabeko ahalegina egiten du bere jardueren ingurumen inpaktua murrizteko eta klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko eta horietara egokitzeko.

Lurzorua, ura eta atmosfera kutsa dezaketen jardueren multzoan sailkatuta egon arren, Danobatgroupen jarduerak duen eragin maila ez da garrantzitsua, SEGYCALek 2009an Mondragon Korporazioko enpresentzat egindako ikerketa baten arabera. Ikerketa hori 2020an berretsi zen, Ondoan enpresak lurzoruaren egoerari buruz egindako txostenaren eguneratzearen ondorioz.

Hori gorabehera, Taldeko enpresek larrialdi plan bat daukate ezarrita, eta plan horretan natura ingurunearen kutsadura posibleari buruzko arrisku nabarmenenak identifikatzen dira, baita ingurumen istripu edo intzidenteen aurrean hartu beharreko prebentzio eta jardute neurriak ere. Plan horretan, besteak beste, gerta litezkeen suteek edo isuriek eragindako istripuekin lotutako neurriak jasotzen dira.

Ilido horretan, Danobatgroupeko instalazioek abisuak emateko eta alarma jotzeko sistemak dituzte, bai eta aplikatu beharreko araudiak sua itzaltzeko eskatzen dituen bitartekoak ere.

Urak kudeatzeko, euri urak eta ur sanitarioak bereizten dituen sare bat dago, eta kontuan izan behar da ur sanitarioak kokaleku bakoitzeko arazketa estazioetara konektatuta daudela. Danobatgroupeko enpresek ez dute inolako isurketa kutsatzailerik egiten, ez ibaietara, ez sistema naturaletara.

Produktu kimikoek dakarten kutsadura arriskuari dagokionez, Taldeak APQ erregelamenduaren arabera eraikitako, mantendutako eta ikuskatutako biltegiak ditu, su hartzeko arriskua duten produktuentzat, hala nola pinturentzat eta disolbatzaileentzat, eta baita olioek edo emultsioek eragindako kutsadura arriskua dutenentzat ere.

Jardueraren inpaktua ez da garrantzitsutzat jotzen ez akustikari ez argiztapenari dagokienez; hori dela eta, funtsean, ez da neurri gehigarririk ezarri ohiko monitorizazio sistemetan jasotakoez gain. Araudiak eskatutako neurri horien artean daude, besteak beste, kanpoko zaraten kontrolak eta barneko zaraten kontrolak, segurtasunaren eta osasunaren esparruan.




Erakundearen karbono aztarnaren neurketa

Klima aldaketari dagokionez, jardueran nabarmentzen den adierazle nagusia erakundearen karbono aztarna da. 2022an neurketa horretarako tresna bat zehaztu zen, berotegi-efektuko gasen isurketak ebaluatzeko eta kuantifikatzeko (Irismena 1, 2 eta 3), eta, horrela, etorkizunerako deskarbonizazio-plan integral bat sortzeko bidean aurrera egin ahal izateko. 2023an, Danobatek, Soralucek eta Idekok beren aztarnaren 3 irismenak neurtu dituzte, eta taldeko gainerako enpresek 2024tik aurrera egingo dute.

Azpimarratu behar da Danobaten neurketa AENORek ziurtatu duela ISO 14064 araudien eta GHGren jarraibideen arabera, eta, horrela, berotegi efektuko gasen isurketen neurketan eta kudeaketan onartutako nazioarteko estandarrekin duen konpromisoa balioztatuz.


1 irismena

Zuzeneko emisioak CO2 Tonetan



2 irismena

Zeharkako emisioak CO2 Tonetan



3 irismena

Zeharkako beste BEG isuriak CO2 Tonetan



Emisioak CO2 kg bal./ fakturazioko m€



Informazio gehiagorako, ikus: 11. eranskina, GRI 305-1 Berotegi efektuko gasen zuzeneko isuriak (1 irismena), 305-2 Energiari lotutako berotegi efektuko gasen zeharkako isuriak (2 irismena) eta 305-3 Zeharkako beste BEG isuriak (3 irismena)

Mugikortasun Plana

Langileek lantokira egiten dituzten joan-etorrien eragin negatiboa murrizteko asmoz, 2022an taldeak diagnostiko bat egin zuen mugikortasunean espezializatutako aholkularitza-entresa baten bidez, eta bertan pertsonen % 70ek baino gehiagok parte hartu zuen. Diagnostiko horren ondoren, 2023an, Mugikortasun Plan espezifikoa onartu da taldeko enpresak kokatuta dauden kokaleku bakoitzerako.

Plan honen ekintza garrantzitsuenetako bat aplikazio (APP) bat ezartzea izan da, pertsonen artean autoa partekatzea errazteko eta bultzatzeko. Ekimen hau urrats zehatz eta praktikoa da mugikortasun-praktika eraginkorragoak eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoak sustatzeko bidean, erakundearen iraunkortasun-helburuekin bat datozenak.

DANOBATGROUP

Konektatu, murriztu eta aurreztu!

BAZTEREKEN...
Danobatgropuko pertsonen mugikortasunaren CO2 emisioak konpontzeko, **urtean 7.500 zuhaitz** baino gehiago landatu beharko genituzke!

Egurero lanera etortea zerbat kostatzen zaitzun kalkulatu duzu?
Imajinatu kostu hori lantzen zaitzen

Danobatgropuko pertsona askok mugikortasunaren diagnostikoa egindako ekarpenaren ondoren, taldetako **mugikortasun jasangarriagoa** aztertu egin dezagun **plana bat** lantzen ari gara. Horren ondorioz, gure egoerakoa (joan-etorrietan autoa partekatzea errazteko) **gure APP** bidez errazten ditugu.

Deskargatu aplikazioa eta lagundu mugikortasun jasangarriagoa lortzen!

Aplikazioaren abantailak

- AURREZKIA** Murriztu zure ibilbidearen kostua.
- HARREMANAK** Ontzirik gabe partekatzen dituzun zure ibilbide partekatuak harmonizatuak izan.
- MALGUTASUNA** Egun berran planifikatu ibilbidea, zure buketan eta dauden aukeren arabera.
- JASANGARRITASUNA** Laguntza CO2 murrizten zure joan-etorrietan.
- ONURAK** Laguntza CO2 aztertzeko aukerak partekatzen dituzuek, eta zure ibilbide berrak berrak izan. **Berri mugatu!**

Anima zaitetz!

- 01 Deskargatu **Ciclogreen** aplikazioa App Store-n edo Play Store-n
- 02 Biltu Danobatgroup dauden erakundeetan arazoak eta erregistratu kodea hiru erabiliz: **DANOBATGROUPWV**

Informazio gehiago > Erregimen eta zerbitzu beharrezkoak eta zure gaitasunak

Parte hartu urrutian: Teams, WhatsApp, LinkedIn, etc.

• info@danobatgroup.com
• www.danobatgroup.com
• www.danobatgroup.com

Klima-aldaketaren ondoriozko finantza-arriskuen azterketa

Fenomeno global honen ondorio ekonomikoak ebaluatzeak eta kudeatzeak gero eta garrantzi handiagoa duela onartuta, nabarmentzekoa da 2023an taldeko enpresa nagusiek, Danobatek eta Soralucek, tailer batzuetan parte hartu dutela klima-aldaketaren ondoriozko finantza-arriskuak aztertzeke, marko honen arabera: Task Force on Climate-related Financial Disclosures (TCFD). Tailer horien ondoren, 2024an azterketa oso bat egitea espero da, arriskuen kudeaketari buruzko esparru integral bat izateko eta klima-aldaketarekin lotutako finantza-aukerak aprobeztatzeko.

Biodibertsitatea babestea

Taldeak bere ezarpen eremuetan egiten duen industria jarduerak ez dio biodibertsitateari produkzio lantegietako lurzoruen okupazioak dakarrena baino haragoko kalterik eragiten.

Lantegi nagusiak ez daude babes bereziko inguruneetatik edo babestutako eremuetatik gertu; beraz, ez da babes neurri berezirik aurreikusten, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azterketa eta jarduera amaitzean horiek leheneratzea izan ezik.

Horretarako, 2007an, lurzoruen kalitatearen azterketa egin zen, ingurugiroan espezializatutako ONDOAN aholkularitzak 2020an egindako txosten berri baten bidez eguneratu zena. Txosten hori lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren arabera egin zen. Txosten horren arabera, lurzoruan eragina izateko probabilitatea IV. mailakoa da (ez da beharrezkoa esku hartzea), eta ingurunearen sentsibilitatea oso txikia; beraz, txostenetik ateratzen den ondorioa da neurri zuzentzaile edo prebentiboekin eta enpresen kokalekuan dauden defentsa neurriekin eta kontrol eta jarraipen neurriekin minimizatu edo ekidingo dela ingurumenari (lurzorua eta lur azpiko urak) zein giza osasunari eragindako kaltea.

Produktuen ingurumen inpaktua

Produktuen ingurumen inpaktua bizi ziklo osoan zehar minimizatzea funtsezko faktorea da Danobatgroupen jasangarritasun estrategian. Ingurumena eta klima gehiago errespetatzen dituzten fabrikazio soluzioak garatzea funtsezkoa da industriaren jasangarritasuna bermatzeko eta, beraz, kalitate handiagoko produktuak, produktiboagoak, efizienteagoak eta jasangarriagoak garatzeko.

ISO 14006 EKODISEINUAN

Produktu batek bere bizialdian sortzen duen ingurumen inpaktua, berez, produktu hori diseinatu zenean hartutako erabakiek baldintzatzen dute. Hori dela eta, oso eraginkorrak diren produktuak diseinatzea funtsezko faktorea da enpresak ingurumena errespetatzeko eta zaintzeko konpromisoa bete dezan.

Enpresa konpromiso horren erakusgarri garbia da ingurumena errespetatzen duen diseinu eredu baten ziurtagiria izatea. Hori da, hain zuzen, Taldeko Soraluze enpresaren kasua; izan ere, duela 10 urte baino gehiagotik hona egiaztatzen du, AENORen bitartez, bere makinaren diseinua Ekodiseinua Kudeatzeko Sistema baten barruan egiten dela, ISO 14006 arauaren arabera. Aipatu behar da Soraluze dela ziurtagiri hori lortu duen makina-erremintaren sektoreko lehen enpresa. Orain arte, 27 makina modelo daude ekodiseinuan ziurtatuta, 4 modelo 2023an.



Soraluceren 27 makina modelo ziurtatuta daude ekodiseinuan.

Fabrikazio eraginkorrago eta jasangarriago baterako berrikuntza

Danobatgroupek ikerketa eta garapen lan handia egiten du bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuak hobetzeko. Ikerketaren alorrean garatutako proiektu gehienak, azkenean, Taldeak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuetan txertatzen dira, produktu eta zerbitzuok teknologikoki aurreratuagoak bihurtuz eta ingurumen inpaktua minimizatuz.

Ikerketa proiektuek zenbait alderdi teknikotan eragiten dute, baina, memoria honetan, Taldeak garatzen dituen fabrikazio ekipoak eta sistemak eraginkorragoak eta jasangarriagoak egiten dituztenak azpimarratzen dira. Ondoren, proiektu garrantzitsuenak aipatzen dira, zenbait ikergairen arabera multzokatuta.

Fabrikazio prozesuetan sortzen diren **BIBRAZIOAK** amaitutako piezen errefusa askoren jatorrian daude, eta energia eta lehengai gehiago kontsumitzea dakarte, erreminten eta ekipoaren beraren higadura goiztiarra eragiteaz gain.

Bibrazioen ondoriozko arazoak ekiditeko, Danobatgroupek eginak ditu proiektu batzuk, eta horien artean nabarmentzekoa da **MAPE** izenekoa, bibrazioak kontrolatzeko sistema eramangarria, pieza lerdenen mekanizaziorako bereziki egokitua.

KALITATEA produkzio prozesuen funtsezko faktorea da. Kalitatezko piezak ekoizteak ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak berriro fabrikatu behar izatea galarazten du, eta horrela lehengai eta energia kontsumoa murrizten da. Zenbait proiektu egin dira kalitatea hobetzeko, eta horietatik hiru nabarmenduko ditugu:

- **ARTE2:** biki digitalen teknologia garatzen du, eta artezketa prozesuan pieza kritikoen gainazaleko eskakizun berri eta zorrotzagoak asetzeko aukera ematen du.
- **KAIA:** kalitate kontroleko plataforma digitala, adimen artifizialaren bidez zero akatsekin fabrikatzeko.
- **ANDREA:** helburua da baliabideen kontsumo intentsiboan oinarritutako egungo ikuspegietatik NDT digitalen ikuskapen teknika berrietan oinarritutako akatsik gabeko fabrikazio eraginkor eta jasangarri batera igarotzea.
- **SUSTWIND:** Offshore aerosorgailuen belaunaldi berriaren fabrikazio iraunkorrerako sistema adimendun berrien garapena.
- **RECOAT:** Artezketa teknologien diseinua eta inplementazioa estaldura aurreratu eta jasangarrien ezarpena bultzatzeko.

Makina baten **DOITASUNAK** fabrikatutako piezen kalitatea zehazten du. Doitasuna denboran mantentzeak kalitatezko piezak fabrikatzen jarraitzea eta makinaren bizitza luzatzea ahalbidetzen du, lehengaien kontsumoa murriztuz. Helburu horrekin, zenbait proiektu landu dira, eta horien artean **CORTEX** izenekoa nabarmentzen da, Ultra Near Net Shape osagai kritikoetan ahalik eta doitasun handiena bilatzeko.

TEKNOLOGIA DIGITALAK txertatzeak makinak eta prozesuak birtualki simulatzeko eta optimizatzeak aukera ematen du, biki digitalak txertatuz. Halaber, datuen teknika analitikoak eta adimen artifiziala erabiliz, fabrikazio eta mantentze prozesuak eraginkorragoak dira, eta horrek materialen eta energiaren kontsumo optimoa dakar. Teknologia digitalak txertatzeko egindako proiektuen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **SUSTWINABLE:** tamaina handiko piezak ekoizteko makina-erreminten errendimendua eta jasangarritasuna hobetzen duten soluzio teknikoak garatzea eta ezartzea, biki digitalen teknologia ahalik eta gehien aprobetxatuz.
- **LEVEL-UP:** kapital inbertsio handien eta tamaina handiko ekipo industrialen bizitza baliagarria luzatzeko protokoloak eta estrategiak.

Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude



GRI 301 — [301-1]

GRI 302 — [302-1]

GRI 303 — [303-5]

GRI 305 — [305-1] [305-2] [305-3]

GRI 306 — [306-3]

GRI 307 — [307-1]



→ 07

Ingurunearen garapen jasangarriarekiko konpromisoa

- 📍 Konpromiso soziala
- 📍 Tokiko hornitzaile katea

Danobatgroupen ezaugarri kooperatiboenetako bat da betidanik eta kooperatiba izateko arrazoiari lotutako helburu hau: gizartean eta presentzia duen komunitate eta inguruneetan eragin positiboa sortzen laguntzea, Taldearen berezko enpresa jardueratik harago. Horregatik, Danobatgroupek rol aktiboa du presente dagoen komunitateetan, eta ingurunean balioa sortzen du, haren aurrerapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko.

Horrela, ongizatea eta osasuna, garapenerako lankidetzak, gizarteratzea, prestakuntza, ingurumena, kirola, euskara, kultura eta bestelako arloetan ekimenak sustatzen ditu; garapen sozioekonomikoa, berrikuntza eta ezagutzaren zabalkundea sustatzea helburu duten erakunde, instituzio eta foroetan parte hartzen du; eta hurbileko erosketa bultzatzen du, ingurumenarekin hartua duen konpromisoarekin eta ingurunearen garapen ekonomikoarekin duen inplikazioarekin bat etorritik.

Gizarte-erantzukizunarekin eta garapen iraunkorrarekin duen konpromisoa indartzeko, memoria honen 4. atalean aipatzen den bezala, 2023an Gizarte Ekintzako Politika bat sortu da, Danobatgroupen Iraunkortasun Estrategiaren gizartearekiko konpromisoaren eremuari dagozkion helburuak erakundearen eraginkortasunez integratzeko erreferentzia-esparru gisa.

Danobatgroupek aurrera egiten du...



Garapen sozialarekin lotutako ekintzak bultzatuz.

Azken 3 urteetan IPDK funtsetatik 1.500.000 € baino gehiago 200 erakunde baino gehiagori eman zaizkie, garapen sozialarekin lotutako ekintzetarako.



1.5 M€

IPDK funtsetatik garapen sozialera



Gizartea eraldatzeko ekimenak sustatuz, Danobatgroupeko pertsonen parte hartzearekin, Elkarrekin Eragin programaren bitartez.

523.000 €, 2021-2023 aldirako Danobatgroupeko pertsonen aukeratutako 3 erakunderentzat.



523.000€

Elkarrekin Eragin programaren bidez bideratuak



Tokiko hornidura kate baten aldeko apustua eginez.

Hornitzaile industrialen %70 ingurune hurbilean kontzentratuta daude (EAE eta Nafarroa), eta %80 baino gehiago espainiar estatuan.



Hornitzaile industrialen %70

inguruko hornitzaileak dira (EAE eta Nafarroa)

Konpromiso soziala

Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako funtsak (IPDK)

Gizartean inpaktu positiboa eragiteko, Taldeak gizarte eraldaketako ekimenak babesten eta finantzatzen ditu, dagoeneko ezarrita dituen mekanismo eta irizpide batzuen bidez.


Danobatgroup osatzen duten kooperatibek beren irabazi garbien %10 Kooperatiben Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako funtsera (IPDK) bideratzen dute.

Funts horien banaketa aurretik ezarritako irizpide batzuen arabera egiten da, eta, besteak beste, honako hauek hartzen dira kontuan: laguntzaren xede den eremu geografikoa, jarduera eremuak, proiektuek gizartearentzat zein erakunde sustatzailearentzat dituen ondorioak, eta erakundeko langileek zenbateraino bermatzen duten proiektua.


Esparru horren barruan dago, adibidez, Osintxu Biziberritu proiektua, Taldeko enpresa batek bultzatua, Bergarako Osintxu auzoaren biziberritzea bultzatzeko helburuarekin. Bertan dago enpresa, eta Eusko Jaurlaritzak degradatutako eremu izendatu zuen 2019an.

Era berean, Danobatgroupek bere instalazioak erabiltzen uzten du izaera sozialeko jardueretarako, Elgoibarko Arriaga poligonoaren kasuan bezala, odola emateko.

Toki garapeneko ekimenetarako urteko ekarpena guztira:



Danobatgroupek parte hartu duen ekimen batzuen xehetasuna:



Ekintza horiei Elkarrekin Eragin programarenak gehitu behar zaizkie. Ekimen hori 2018an abiatu zen, Taldeko pertsonen inplikazio aktiboaren bidez gizartea eraldatzeko ekintzak bultzatzeko. Gainerako laguntzak ez bezala, Elkarrekin Eragin programan erakundeko pertsonak proposatu eta aukeratzeko dituzte. Hiru urte irauten duen programa denez, erakunde onuradunek epe luzerako konpromisoa eta laguntza izan dezakete.

2018, 2019 eta 2020 urteetan lehen edizioak izandako arrakastaren ondoren, 2021ean bigarren edizioari (2021, 2022 eta 2023 urteak) ekin zion Taldeak, eta 523.000 € bideratu zituen hiru erakunde hauetara:

523.000€



2023an, berriz ere aktibatu da taldeko pertsonen proposamenak biltzeko prozesua, 2024, 2025 eta 2026 zikloan edizio berri bat martxan jartzeko.

DANOBTGROUP

ELKAR EGIN ERAGIN.
3. EDIZIOA

Gizarte erantzukizunari lotutako elkarrekin batekin lankidetzan ari zara? **Proiektu interesgarriak ezagutzen duzu?**

Zure proposamena ezagutu nahi dugu!

ANIMATU ZAITEZ ETA AURKEZTU ZURE ERALDAKETA SOZIALARI LOTUTAKO PROIEKTUAK!

Eraldaketa soziala, gure ezaugarri kooperatiboetako bat da. Danobategrupoeko kooperatibak gure ingurunea eraldatzeko asmoarekin sortu gara, enplegu kooperatiboa sortuz, aberastasunaren banaketa bideragarria eginez, ongizatea, gizarte-koheretza eta aurrerapen ekonomikoa bultzatuz. Horregatik gure etekinen zati bat ingurune horren aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko dute.

Jardueretara bideratzen dugu. Testuinguru honetan kokatzen da Elkarrekin Eragin programa. Danobategrupoeko pertsonen inplikazio aktiboaren bidez gizartea eraldatzeko ekintzak bultzatzeko programa berria da. Programa honetan zuek proposatu eta aukeratzeko dituzue proiektuak, eta epe luzean iraupena du. 3 urtean zehar onuradunek gure konpromisoa eta laguntza izango dute.

Nolako proiektuak aurkeztu ahal ditut?

- 1. Aitorrak**
Ongizatea eta osasuna, gizarte-erantzukizuna, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara, kultura eta garapenerako lankidetzako proiektuak izan ahal dira.
- 2. Laguntzen den proiektu edo elkarrekin ezaugarriak**
Trabaz asmorik gabeko ekimena edo elkarrekin izan behar da laguntzen dena.
- 3. Aurkeztu behar dena**
Zuk elkarrekin batera proiektu konkretu bat lantzea eskatzen da. Proiektu zehatz hori eta hori bideratzeko balioak dira aurkeztu behar direnak.
- 4. Aurrekontua**
Guztira aukeratzeko dinan 2 edo 3 proiektuentzat 500.000 euro bideratuko dira (guztira, 3 urterako laguntza); hortaz, proiektu bakoitza 100.000 eta 200.000 euro bitartekoa izan behar da.

*Nemendi larri gertatzen diren IPDKo ohiko ekitekin. Zuzenaz elkarrekin aurkeztu eta laguntza izango duen zuzen.

Zein da aukeraketa prozesua?
Danobategrupoeko Kontseilu Erektoreak jasotako proiektu guzietatik 10 interesgarrienak aukeratuko ditu, eta 10 horien artean bostak kolektibo bidez laguntza jasoko duten 2/3 ekimenak hautatuko dira.

Nora bidali behar dut proposamena?
barnekomunikatuak@danobatgroup.com
2024ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan zure lehendakari edo Kontseilu Erektoreko kideekin batiela.

Zenbait erakunderen gobernu organoetan parte hartzea

Taldea bera parte den lurraldean eta komunitatean oso errotuta dagoenez, Danobatgroupek rol historiko garrantzitsua izan du haien eraldaketa sozioekonomikoan.

Zentzu horretan, Taldeak aktiboki parte hartzen du berak babesten dituen ekimenen eragile diren erakunde batzuetako gobernu organoetan. Makina Erremintaren Museoaren eta Mundukideren kasua da hori.



Eszedentziak garapenerako lankidetzarako


Danobatgroupek eszedentziei buruzko araudi berezi bat du, Mundukideren bidez garapenerako lankidetzarako eszedentziak sustatu eta ahalbidetzeko.

Kooperatiba arteko Heziketa eta Sustapenerako Funtsa

Danobatgroupeko enpresek beren IPDKren %20 Mondragonen HKSF-Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Funtsera bideratzen dute, hezkuntzaren eta berrikuntzaren arloetako jardueretan laguntzeko.

Ekimen horietatik batzuk nabarmentzeko modukoak dira, hala nola euskararen normalizazio programak, gazteen enplegua sortzeko bultzada (Gaztenpresa), Zientzia eta Teknologia Korporatiboko Plana, Mondragonen Gizarte eta Enpresa Politikaren barruan berrikuntza estrategia bultzatzeko tresna gisa; eta ikastetxeen sustapena, hala nola Mondragon Unibertsitateko As a Fabrik.

Azken 3 urteetan Danobatgroupek Mondragonen HKSF funtsera egindako ekarpenak.



Hornidura kate konprometitu eta tokikoa bultzatuz

Danobatgroupek giza eskubideen errespetuaren, ingurumenarekiko errespetuaren eta ustelkeriaren aurkako praktiken oinarritzko balioak hartzea sustatzen du bere hornitzaileen artean. Ildo horretan, Danobatgroupeko enpresek balio horiek operazio guztietan errespetatzen direla ziurtatzea dute helburu.

Horretarako, Taldeak Jokabide Kode bat dauka hornitzaileentzat, eta kode horretan Taldeko enpresen hornitzaileek bete behar dituzten oinarritzko eskakizun batzuk zehazten dira.

Era berean, hurbileko erosketak bultzatzen da, bai ingurumenarekiko konpromisoagatik, bai ingurunearen garapen ekonomikoarekiko inplikazioagatik. Ildo horretan, Taldeko enpresak ingurune industrializatu batean daude, non makina-erremintan espezializatutako hornitzaileen sare zabal bat garatu den. 2023an, Taldearen hornitzaile industrialen %70 baino gehiago gertuko hornitzaileak dira (EAE eta Nafarroa), eta %80 baino gehiago Espainiako Estatuan daude.

Hornitzaile
industrialen
%80

baino gehiago Espainiako Estatuan daude

Hornitzaile
industrialen
%70

baino gehiago EAE eta Nafarroakoak dira

Era berean, Danobatgroup bere hornitzaileen garapenean inplikatzeko da, kudeaketa hobetzeko proiektuak eta berrikuntzarekin eta teknologia berriak hartzearekin lotutako proiektuak sustatuz. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da Darwin proiektua, erosketen digitalizaziorako, edo Ai!Ene proiektua, Soraluze eta Danobat-ek euren hornitzaileei administrazio- eta ekoizpen-prozesuak hobetzea sustatzeko eskaintzen dieten laguntza eta jarraipena.

Era berean, 2023an, hornikuntza-katearen jasagarritasunaren inguruko analisia eta diagnostikoa egin da, 2024rako arlo horretako plan bat zehazten hasteko.




Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude



GRI 203 — [2]

GRI 413 — [1]





08

Kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza

- Berrikuntza
- Bezeroarekiko konpromisoa

Danobatgroupen ustez, funtsezkoa da berrikuntza bultzatzea, 2030 Agendaren helburu globalak lortzen lagunduko duten teknologia, produktu, zerbitzu, soluzio eta prozesu berriak garatzeko. Berrikuntza agerikoa eta ukigarria da, eta abantaila erreal bihurtzen da bezero bakoitzarentzat; abantaila horien artean, produktibitatea, segurtasuna, efizientzia eta azken produktuaren kalitatea handitzea. Aldi berean, energia kontsumoa eta lehengaien erabilera murriztea ahalbidetzen du.

Berrikuntzari esker, taldeko enpresak erresilienteagoak dira, eta negozio aukera berriak irekitzen dira, hazten eta kalitatezko enpleguak sortzen jarraitzeko.

Danobatgroupek aurrera egiten du...



Bezeroarekiko konpromisoa indartuz.



Berrikuntza teknologikoa bereizgarri gisa bultzatuz.



Produktuen kalitatea eta segurtasuna bermatuz.

Hobekuntzak egin dira 2021ean ezarritako bezeroekiko komunikazio kanalen jarraipen arin eta eraginkorrera bideratutako tresnan.



Bezeroekiko komunikazio-kanalen jarraipena egiteko tresnan hobekuntzak.

2023an, I+Gko gastua 28M€tik gorakoa-koa izan zen.



+28 M€-ko

gastua I+Gn

AAren esparruan startup laguntzaileak bilatzeko dei bat egin da.



0

araudiak betetzen ez diren kasuak

Berrikuntza

Berrikuntza funtsezko faktorea da Danobatgroupek azken hamarkadetan izandako hazkunde iraunkorrerako, hainbeste ze bere identitate ikur bihurtu baita. Taldeak bere DNari atxikita darama berrikuntza, eta horrek definitzen du, eta bokazio bihurtzen, beti abangoardia teknologikoan egoteko eta erronken aurretik joateko beharra. Ahalik eta eraginkortasun handiena lortzera eta betiere bezeroa gogobetetzera bideratutako berrikuntza.

Ikuspegi horri esker, Danobatgroupeko enpresak bereizi egin dira fabrikazio aurreratuaren lehiaren agertokian, eta soluzio eta garapen teknologiko aurreratuak eskaintzen dizkiete balio erantsi handiko teknologia eskatzen duten sektore estrategikoei.

Berrikuntzarekin lotutako zifra nagusiak 2023an



I+G+i-ko
gastua:

%9

Fakturazioa kontuan hartuta



Patente
aktiboak:

44

patente
familia



I+G+i-n diharduten
pertsonak:

%15



I+G+i-ko proiektu
aktiboak:

50

proiektu taldeko enpresen
multzorako

Etorkizuneko fabrika hurbiltzen duten teknologiak

Etorkizuneko fabrika autonomo, adimendun eta iraunkorrerantz aurrera egiteko, Danobatgroupek bost ildo estrategikotan jartzen du fokua:

Green manufacturing

Energia kontsumoan ahalik eta efizienteenak izateko lan egiten du, eta zero akatseko ikuspegiarekin berritzen du taldeak, akatsak saihesteko eta piezak lehen saiakeratik zuzen fabrikatzea bermatuko duten soluzio teknologikoak eskaintzeko.

Taldeko makinaren diseinuan berritzen du, ikuspegi jasangarri batekin, taladrinen, hozgarrien eta beste baliabide batzuen kontsumoa murrizten saiatuta erabilera fasean, eta bizi zikloaren amaieran osagaiak birziklatzea eta berrerabiltzea errazteko bideak aztertuz.

Gainera, adimen artifizialeko teknikak aplikatzen ari da mantentze prediktiborako, prozesuak optimizatzeko eta balizko akatsei aurrea hartzeko, akatsak eta hausturak saihesteko, besteak beste.

Doitasunezko ingeniariatza

Danobatgroupeko enpresen espezializazio maila handiak eta bezeroen kalitate estandarrek makina, sistema eta fabrikazio prozesu zorrotz eta doitasun handikoen garapena eskatzen dute.

Horri erantzuteko, aldaketa termikoak, kalibrazioa, bolumetrikoa, lubrifikazio hidrostatikoa eta hidrodinamikoa, kalkulu estatikoak, dinamikoak, termikoak eta multifisikoak lantzen dituzten adituak ditugu, diseinuaren ziklo osoa zehaztasunaren ikuspegitik jorratu ahal izateko.



Digitalizazioa eta AA

Eraldaketa digitalak industria soluzioen automatizazio maila handitzea ekarri du, eta makina-erreminten fabrikatzaileentzat erronka berri bat izan da.

Azken urteetan eraldaketa digitaleko prozesu garrantzitsu bati ekin dio, eta soluzio digitalen eskaintza zabala izan da emaitza (hardwarea eta softwarea), zeinarekin gero eta baloratuagoa den ondasun bat lortu ahal den: gure ekipoen funtzionamendu datuak.

Horri esker eta dauden AAKo teknika berrienak konbinatuz, Taldeko enpresak eskaintza digital indartsua garatzen ari dira, merkatuaren premien arabera.

Mekanizazio prozesuak

Mekanizazio alternatibak bilatzen ditu, azken erabiltzaileei diferentzial produktiboa eta lehiakorra emateko, hozte teknika berriak edo fabrikazio tresna eta ziklo berriak ezarriz.

Kudeaketako eta antolaketako tresna berritzaileak erabiltzen lagunduz, esaterako, prozesu industrialak simulatzeko programak erabiltzen lagunduz, produkzio prozesuak optimizatzeko, fabrikazio kostuen murrizketan efizienteagoak izateko, kalitatea hobetzeko eta segurtasuna bermatzeko lan egiten du.

Dinamika eta kontrola

Makinen eta fabrikazio prozesuen portaera dinamikoa hobetzeko berritzen du, bibrazio arazoan konponketarako bi ikuspegi desberdin eta osagarri oinarri hartuta. Batetik, makinen eta eragingailuen diseinu dinamikoa, eta, bestetik, hainbat mekanizazio prozesutan zarata eta bibrazioak ezabatzen dituzten garapen soluzio espezifikoaren diagnostikoa eta ondorengo inplementazioa.



I+Gko laborategi izatetik berrikuntza motor izatera: IDEKO

Danobatgroupek berrikuntzarekin duen konpromisoa IDEKOren bidez gauzatzen da, funtsezko tresna baita fabrikazio aurreratuan puntako teknologien diseinua eta garapena sustatzeko.

IDEKO 1986an sortu zen, garai hartan Mondragon Korporazioaren makina-erremintaren dibisioa zenaren erronka teknologikoei erantzuteko. Harrezkero, makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren sektoreko berrikuntza gidatzen du, eta ikerketa teknologikoa soluzio erreal bihurtzen du bezeroek planteatutako erronketarako.

Zentro teknologikoaren bitartez, eta lehen mailako beste enpresa eta erakunde batzuekin elkarlanean, Danobatgroupek ikerketa eta garapen ekosistema paregabea sortu du bere enpresentzat.

Berrikuntza irekia

Danobatgroupeko enpresa guztiek berrikuntza irekia bereganatu dute, eta modu sistematikoan garatzen dute. Erakundeaz kanpoko eragileak kontuan hartuta, berrikuntza irekiak ezagutza maila handiagoa edukitzeko eta beste teknologia batzuk eskuratzeko aukera ematen die Taldeko enpresei. Prozesu hori bai nazioko bai nazioarteko zenbait erakunde eta organismorekin egindako aliantzen bidez gauzatzen da.

30 urte baino gehiagoan, Danobatgroupek aktiboki parte hartu du nazioarteko partzuergoetan, I+G arloko Europako finantzaketa programen barruan. Esperientzia horri esker, harreman sare zabala eratu du bere espezializazio alorretan.

Taldeko enpresek garatutako soluzioen espezializazio eta sofistikazio teknologiko handia dela eta, beharrezkoa izan da kolaboratzaileen sare zabal bat eratzea, barruan garatutako gaitasunen osagarri. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da startup-ekiko lankidetzari emandako bultzada; izan ere, hainbat arlotan espezializatuta egonik, Taldeko enpresen produktuei aplikatzen zaizkien baliabide teknologikoen portfolioan teknologia eta ezagutza berriak txertatzeko prozesua bizkortzen dute.

Era berean, Idekoren bitartez, Danobatgroupek etengabeko lankidetzari eusten dio hainbat gaitan erreferente diren erakundeekin. Lankidetzen barruan sartzen dira espezializazio planak kontratatzea, doktore tesiak lantzea, proiektu espezifikoetan kontratatzea eta ikertzaileak aldi baterako trukitzea.

Lankidetzak garrantzitsuenak aliantzei eta lankidetzari buruzko kapituluak zehaztu dira. Unibertsitate eta ikerketa zentroekin berrikuntzaren arloan egindako lankidetzak zerrendatzen dira.



Waterloo Unibertsitatea,
Makinen Dinamikan.



Budapest Unibertsitatea,
Ibilbideen Kontrolean.

ETH zürich

ETH – Zurich,
Doitasuneko Ingeniaritzan



UPV – EHU,
Mekanizazio Prozesuetan.



BCAM, Basque Center of Applied
Mathematics, Adimen Artifizialean.



Bremengo Unibertsitatea,,
Arteketan.



Software Competence Center
Hagenberg (SCCH) – Austria,
Software Adimendunean.



BRTA,
Basque Research Technology Alliance.

Bezeroarekiko konpromisoa

Bezeroaren gogobetetzea

Danobatgroupeko enpresak bezeroarengana orientatuta daude argi eta garbi, eta enpresako arlo guztietako ezagutza aditua batzen dute onena eskaintzeko. Fokua bezeroarengan jartzearena, berez, berritzaileenak eta aurrerapen teknologikoarekiko konprometituenak diren soluzioen jatorrian dago, eskakizun handieneko erronkei erantzunez. Taldeko enpresek bezeroen beharrei egokitutako produktu eta zerbitzu pertsonalizaturik onenak garatzen dituzte. Bezeroekiko hurbilketak eta harreman zuzenak haien leialtasuna eta konfiantza dakartza, eta hori guztia eskaerei erantzuteko pertsonalizazioan eta malgutasunean oinarritzen da, Danobatgroupen proposamenaren alderdi bereizgarri bihurtuta.

Bezeroarentzako arreta optimizatzeko, Taldeko enpresek elkarrizketa arina bultzatzen dute, eta zenbait kanal jartzen dituzte bezeroen espektatibak zein

diren jakiteko, haien kontsultak eta erreklamazioak jasotzeko eta erantzun arin, pertsonalizatu eta kalitatezkoa emateko. Horretarako, askotariko kanalak gaitu dira, helburuaren arabera. Horien artean, aipatzekoak dira Taldeko enpresen webguneen online inprimakiak, bezeroekin komunikatzeko postontzi espezifikoak, makinaren intzidentziak 24h/365 egunetan erregistratzeko plataformak, makinaren egoera denbora errealean monitorizatzeko plataforma, eta abar. Kanal horien etengabeko segimendua duela gutxi inplementatutako eta etengabe hobetzen ari den Microsoft dynamics sistemarekin egiten da, zeinak kudeaketa arina eta eraginkorra ahalbidetzen baitu.

Era berean, Taldeko enpresek gogobetetze inkestak egiten dizkiete bezeroei hainbat unetan. Inkesta horiei esker, negozioek bezeroak produktuarekin daukan esperientzia jasotzen dute, ondoren etengabeko hobekuntzaren esparruan ebaluatzeko.

Produktuen kalitatea eta segurtasuna

Makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren sektorea eskakizun handi eta zorrotzeko ingurunea dela kontuan hartuta, non exigentzia maila etengabe hazten ari den, kalitatea ziurtatzea funtsezko faktorea da arrakastarako.

Illo horretan, Danobatgroupen makineria aurreratua fabrikatzen duten enpresa guztiek ISO 9001 ziurtagiria daukate, eta Idekok UNE 166000 ziurtagiria.

Danobatgroupek, bestalde, taldeko enpresek merkaturatzen dituzten makinak erabiltzen dituzten pertsonen segurtasuna zaintzen du. Danobatgroupeko enpresek segurtasunaren arloko teknologia aurreratuenak ezarri dizkizuten eta eraikitzen dituzte makinak, CE marka jartzeko 2006/42/CE Makinen Zuzentaraua betez, baita aplikatzekoak diren beste Zuzentarau batzuk (Bateragarritasun Elektromagnetikoa, Behe tentsioa, etab.) eta aplikagarriak diren arau harmonizatu guztiak betez ere. Nabarmenezkoa da 2023an ez dela ez-betetzerik identifikatu araudi horiei dagokienez.

Danobatgroupek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du AFMrekin (Makina Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte - Erremintak, Osagarriak, Osagaiak eta Erremintak). Hitzarmen horren barruan, AFMko segurtasun departamentuak modu proaktiboan dihardu taldea eguneratuta egon dadin, bai makinaren diseinuari

aplikatzen dion araudian, bai fabrikazio espediente tekniko eguneratu batean. Elkarte sektorialeko langileek eta taldeko enpresetan makinaren diseinuaz eta eraikuntzaz arduratzen diren teknikariek egiten dituzten lan bilerak ere lankidetzaren jarduerak dira, eta bilera horietan, besteak beste, legeria betetzen den ala ez begiratzen da zorrotzki, legeria maiz aldatzen baita.

Hola, Danobatgroupek ziurtatzen du etengabe informatuta egongo dela eragiten dion edozein araudiri buruz, araudi hori garatzen den unetik bertatik. Hala, AFMrekiko lankidetzaren egituratuari esker, taldeko enpresek aurrerapenez ezarri ahal dituzte indarrean daudenak baino zorrotzagoak diren segurtasun neurriak.

Danobatgroup saiatzen da une oro makinaren segurtasunaren abangoardian egoteko beharrezkoa den guztia egiten. Horretarako, segurtasunarekin lotutako gai ugari arreta jartzen dute eta, batez ere, makinaren diseinuan segurtasunaren alderdi kritikoenak lantzen dituzten AFMren inguruko hainbat foro eta lantaldeetan parte hartzen du.

Atal honetako ekintzak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta daude.

9 INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA ETA
AZPIEGITURA



GRI 416 — [416-2]

Gai materialak identifikatzeko prozesua

- Aurretik kontuan hartu beharrekoak
- GJHei egindako ekarpena
- Gai materialen analisia eta definizioa
- Danobatgroupentzat garrantzitsuenak diren gaiak
- Interes taldeekiko komunikazioa

Aurretik kontuan hartu beharrekoak

Integrazioa

Danobatgruppen plan estrategikoa egiteko prozesuan, ingurumenari, gizarteari eta gobernantzari buruzko gaiak (IGG) sartu dira. Emaitza gisa, IGG faktore horiek enpresako prozesuetan ere sartzen dira, eta modu eraginkorrean bideratzen dira prozesu horien arduradun zuzenen bidez.

Lankidetzeta

Danobatgruppen prozesuetan IGG faktoreak txertatzeaz arduratzen diren pertsoneri laguntzeko, diziplina anitzeko lantaldeak sortu dira, eta, aldi berean, IGG gaietarako talde espezifikoak. Lantalde horiek Taldearen ingurunean eta jarduera eremuan hautemandako gaiak eta sentsibilitateak eta Danobatgruppen jardueran eragina izan dezaketen arrisku potentzialak ikertu eta aztertu dituzte.

Gainera, lantaldeek kanpoko laguntza izan dute, bai enpresa espezializatuena, bai Mondragon Korporazioko adituena. Lantaldeekin estuki lan eginez, prozesu osoan zehar gidatu dituzte, eta bereziki erabakigarria izan da haien ezagutza eta esperientzia IGG gaiak bereziki garrantzitsuak diren egoeretan sakontzeko orduan.

Materialtasuna

Danobatgroupek eta bere Interes Taldeek batzuek eta besteek egiten duten jardueran eragin materiala izateko aukera handiagoa dutela uste izan duten IGG faktoreetan oinarritu da lana. Hasteko, Danobatgruppen parte hartzen duten interes talde guztiak identifikatu ziren eta gero horiei guztiei kontsulta egin zitzaizen zuzenean.

Planteatutako IGG gai ugarien arteko bakoitzari buruzko banakako iritzi guztiak haztatuta, materialtasun matrizea egin zen, eta horri esker identifikatu eta lehenetsi ahal izan ziren gerora Taldearen plan estrategikoa sartu diren gai garrantzitsuenak.



GJHei egindako ekarpena

Danobatgroupek erantzukizunez egiten du bere jarduera, eta, une oro, kontuan hartzen ditu jarduera horrek gizartean, ingurumenean eta erakundeko bertako pertsonengan dituen inpaktuak. Ingurumenari, gizarteari eta gobernantzari lotuta Taldeak egiten dituen ekintzak egoki kudeatzeko eta etengabe hobetzeko, ekintzok plan estrategikoan sartu dira.

Zentzu horretan, Danobatgroupek uste du ez dela nahikoa bere jarduerak interes taldeetan eta gizarte osoan inpaktu negatiborik ez eragitea, eta horrekin bakarrik ezin direla konforme egon. Taldeak garapena bultzatu nahi du, negozioak egiteko modua aldatuko duen eta gizartearen ongizatea hobetuko duen inpaktu positiboa sortuz.

Danobatgroupek Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 17 Helburuekin (GJH) bat egiten du, eta bere jarduerak aztertzen ditu, GJHak betetzen zenbateraino laguntzen duten kontuan hartuta.

Memoria honen edukiak Danobatgroupen 2021-2024 Plan Estrategikoan aurreikusitako ekintzekin lerrokatuago dauden Garapen Jasangarriko Helburuetan eragiten du. Txosten honek azaltzen du Taldearen jarduerak nola laguntzen duten, bai plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzen, bai guztiontzako etorkizun jasangarria lortzen.

Ikuspegi horretatik, jasangarritasun-memoria honek Danobatgroupek eta bere enpresa kooperatiboek garatzen duten jarduera azaltzen du, eta arreta jartzen du honako hauetara bideratutako ekimenetan: ekoizpen arduratsua; antolakuntzari eta produktuei aplikatutako berrikuntza; eraginkortasun energetikoa, bai erakundean, bai fabrikatzen dituen produktuetan; berotegi-efektuko gasen murrizketa eta ingurumen-kudeaketa (hondakinak, baliabideen erabilera). Gainera, hasiera-hasieratik, Taldeak arreta berezia eskaini dio gobernu korporatiboa indartzeari eta pertsonen bizi kalitatea hobetuko duen eta haiek modu integralean garatuko dituen lan ingurune bat eraikitzeari, ekintzailtza, kudeaketan parte hartzea eta lortutako emaitzen erantzukizuna sustatuz. Era berean, dibertsitatea, genero berdintasuna eta diskriminaziorik eza erakundea aberasten duten faktoreak direla uste da. Azkenik, Danobatgroupek lankidetzak aktiboki baloratzen eta garatzen du, enpresekin, erakundeekin eta eragile sozialekin lankidetzan arituz, gizarteari balioa emango dioten aliantzak bultzatzeko.

OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

Gai materialen analisia eta definizioa

2020ko 2. seihilekoan, Danobatgroupek materialtasunari buruzko azterlan bat jarri zuen abian, Taldearen jasangarritasunerako gai garrantzitsuak zehazteko, gure interes taldeen lehentasunak eta Danobatgroupek lehentasun horiek kudeatzeko modua kontuan hartuta.

Aldi berean, Danobatgroupeko enpresak gogoeta estrategikoko prozesu batean murgildu ziren, eta 2021-2024 aldirako plan estrategiko berri bat ekarri zuen prozesu horrek. Hala, 2021-2024 Plan Estrategiko berriak jasangarritasuna sartzen du markatuta dituen lehentasunezko 8 jardute ildo estrategikoen artean.

Materialtasunaren azterketa lau faseko prozesu gisa egin da, eta gure jardueraren arloak lehenesteko aukera eman digu.

2021-2024 Plan Estrategiko jasangarritasuna sartzen du markatuta dituen lehentasunezko 8 jardute ildo estrategikoen artean.

1. fasea Gai garrantzitsuen definizioa

Hasteko, gai garrantzitsuak identifikatu ziren, eta horretarako, aztertu ziren, batetik, kanpoko iturriak, hala nola joerak, benchmarking sektoriala eta aplikatu beharreko araudia, eta, bestetik, barruko iturriak. Gaien zerrenda horretatik abiatuta eta gaiak balidatzeko prozesu bat egin eta gero, prozesuan aurrera egiteko gai materialen zerrenda bat atera zen.

2. fasea Gai garrantzitsuen kontrastea eta barne balidazioa

Danobatgroupek gai bakoitzaren garrantzia baloratu zuen, honako faktore hauek kontuan hartuta: gaiak negozioetan dituzten eraginak, inpaktu horietatik eratorritako arriskuak, eta korporazioaren markan eta ospean duten eragina. Prozesu horren ondorioz, sakonago aztertu beharreko gai materialen behin betiko zerrenda egin zen.

3. fasea Kanpoko eta barruko interes taldeei kontsulta egitea

2020ko azken hilabeteetan, 312 kontsulta egin zitzaizkien barneko eta kanpoko interes taldeei, pertsona eta erakunde garrantzitsuekin bilerak eginez eta, batez ere, online inkesten bidez.

4. fasea Materialtasun matrizea


Interes taldeei egindako kontsulten emaitza gisa, lehentasunezko gai materialen matrize bat egin zen, bi ardatzetan oinarrituta: gaiak barruko interes taldeentzat duen garrantzia eta kanpoko interes taldeentzat duen garrantzia.

Matrizeak interes talde bakoitzerako egindako haztapena hartzen du kontuan. Barruko interes taldeentzat, enpresari ekonomia, ingurumen eta gizartearen arloan egiten dioten eraginaren arabera egiten da haztapena. Kanpoko interes taldeentzat, berriz, enpresaren jarduerak ekonomia, ingurumen eta gizartearen arloan egiten dien eraginaren arabera.

Gai materialak identifikatzeko prozesua

Guztira 28 gai ebaluatu dira, 6 kategorian hauek sailkatuta: (1) Ingurumena, (2) lan praktikak, (3) etika eta gobernantza korporatiboa, (4) produktuak eta zerbitzuak, (5) gizartea, eta (6) ekonomia. Materialtasunaren matrizearen bidez, 28 gaiak garrantzi handienetik txikienera ordenatu dira. Garrantzi handiko 11 gaiak Danobatgroupen Jasangarritasun Planera eraman dira, 2021-2024 Plan Estrategikoan modu transbertsean txertatuta.

Materialtasun matrizea



Zk. Gai materialak

1	Energia	16	Enpresa kultura aurreratua
2	Emisioak eta klima aldaketa	17	Praktikarik onenak aplikatzea Gobernu korporatiboan
3	Hondakinen kudeaketa	18	Produktuen kalitatea eta segurtasuna
4	Bizi zikloa eta baliabideen kudeaketa	19	Bezeroaren gogobetetzea
5	Ekonomia zirkularra	20	Produktu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza
6	Prestakuntza eta garapen profesionala.	21	Tokiko komunitateetan inplikatzeko. Eraldaketa soziala
7	Talentuaren kudeaketa	22	Elkartasun mekanismoak
8	Laneko segurtasuna eta osasuna	23	Interes taldeekiko harremana eta konpromisoa
9	Dibertsitatea eta berdintasuna	24	Tokiko hornitzaileak
10	Diskriminaziorik eza	25	Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa
11	Giza eskubideen errespetua	26	Hornitzaileen ebaluazio soziala
12	Etika eta integritatea negozioetan	27	Errentagarritasuna eta jarduera
13	Ikaskuntzaren kultura	28	Aliantzak / Lankidetzak estrategikoak / Interkooperazioa
14	Antolamendu demokratikoa		
15	Gardentasuna eta informazioaren kudeaketa		

Danobatgroupentzat garrantzitsuenak diren gaiak

Gaien garrantzia zehazteko, barne zein kanpo ikuspegiak hartzen dira kontuan.

Gaiak Zuzendaritzarekin balidatzeko prozesuan, batzea erabaki da, batetik, “dibertsitatea eta berdintasuna” gaia eta “diskriminaziorik eza” eta, bestetik, “talentuaren kudeaketa” eta “prestakuntza eta garapen profesionala”.

Era berean, irismena handitzeko eta merkatuaren joerekin bat egiteko, erabaki da “energia” gaia “emisioak eta klima aldaketa” gai materialean sartzea.

Bestalde, Zuzendaritzak “aliantza/lankidetzak estrategikoak eta interkooperazioa” gaiari, batetik, eta “tokiko komunitateetan/gizarte eraldaketan izandako inplikazioak” gaiari, bestetik, emandako garrantzia kontuan hartuta, erabaki da biak gai material gisa sartzea.

Gehitu diren bi gai garrantzitsuak aintzat hartuta, hauek dira Danobatgrouperako lehentasuna duten gaiak:

Gai materialak	Azalpena
Emisioak eta klima aldaketa.	Atmosferara egiten diren emisioak gutxitzea eta klima aldaketaren aurka borrokatzea.
Hondakinen kudeaketa	Hondakin gutxiago sortzea, berrerabilera eta birziklapena sustatuz, esaterako, eta hondakin uren sorrerari lotutako inpaktuak murriztea.
Prestakuntza eta garapen profesionala.	Enpresa barruan eskaintzen den prestakuntza eta trebakuntzaren bitartez pertsonen modu integralean profesionalki eta pertsonalki garatzen lagunduko dieten guneak eta kultura sortzea.
Talentuaren kudeaketa.	Talentua erakartzea, garatzea eta atxikitzea sustatzea. Pertsonen plangintza estrategikoak egitea, aurreikusteko zer profil beharko diren eta gaur egun ditugun kolektiboen gaitasunek norantz jo behar duten. Marka enplegatzailea lantzea eta eskatutako profilak erakartzeko estrategiak ezartzea. Etengabeko ikaskuntzaren aldeko kultura ezartzea maila guztietan, pertsonak ikasteko eta aldaketetara azkar moldatzeko gai izan daitezen.
Laneko segurtasuna eta osasuna.	Ingurune osasuntsua eta segurua sustatzea, lan arriskuen prebentzioaren bitartez eta langileen osasuna eta segurtasuna sustatuz.



Zuzendaritzak “aliantza/lankidetzak estrategikoak eta interkooperazioa” gaiari, batetik, eta “tokiko komunitateetan/gizarte eraldaketan izandako inplikazioak” gaiari, bestetik, emandako garrantzia kontuan hartuta, biak gai material gisa sartzea erabaki da.

Gai materialak	Azalpena
Dibertsitatea eta berdintasuna.	Lan ingurune inklusiboa bultzatzea, dibertsitatea, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eta kultur aniztasuna oinarri izanik.
Diskriminaziorik eza	Diskriminaziorik ez egotea bermatzea, pertsonak (langileak, bezeroak, erabiltzaileak, etab.) arrazagatik, sexuagatik edo beste edozein arrazoiengatik desberdin tratatzea prebenitzeko neurrien bitartez.
Etika eta integritatea negozioetan.	Enpresako gobernu organoek eta kudeaketa organoek portaera etikoa eta arduratsua izango dutela bermatzea, eta hainbat praktika, hala nola ustelkeria, eroskeria, iruzurra eta lehia desleiala ekiditeko mekanismoak ezartzea.
Produktuen kalitatea eta segurtasuna.	Lehiakortasun maila handiak lortzea baliagarriak eta onuragarriak diren kalitate handiko eta segurtasun handiko produktuak eta zerbitzuak garatuz.
Bezeroaren gogobetetzea.	Bezeroaren gogobetetzea
Produktu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza.	Produktu eta zerbitzuen etengabeko berrikuntza eta egokitzapena sustatzea, bezeroen, merkatuaren eta gizartearen premia aldakorrei erantzuteko, baita klima aldaketari ere (produktu eta zerbitzu ekojasagarriak).

Interes taldeekiko komunikazioa



Barruko interes taldeak

Zuzendaritza Kontseilua

Kontseilu Errektorea/Soziala



Kanpoko interes taldeak

Bezeroak

Hornitzaileak

Administrazio Publikoa

Eskualdeko Administrazio Publikoa
Tokiko Administrazio Publikoa
Administrazio Publiko Nazionala

Lankideak

Kanpoko ordezkariak
Elkarte sektorialak
Zentro teknologikoak
Unibertsitateak

Mondragon Korporazioa

Mondragon
MIA
Laboral Kutxa
Lagun Aro

Eragile sozialak

Prentsa eta sare sozialak
Telebista eta irrati kateak
GKEak
Kultur elkarteak

Danobatgroupen interes taldeekin harremana eta elkarrizketa izatea funtsezkoa da haien kezak ezagutzeko eta kontuan hartzeko Taldearen jardueraren garapenean.

Interes taldeekin komunikatzeko prozesuak abantaila batzuk dakartzkio Danobatgroupi, eta, horregatik, komunikazio hori funtsezko faktorea da estrategiaren definizioan eta kultura korporatiboan:

- Arriskuaren kudeaketa hobetzen du, enpresarentzat garrantzitsuak diren gaiak hautatzean interes taldeen iritzia aintzat hartzen baitu.
- Oraingo eta etorkizuneko testuinguru sozial, ekonomiko eta ingurumenekoa gehiago ezagutzea dakar, eta horrek aukerak identifikatzea ahalbidetzen du.
- Interes taldeek Danobatgroupengan jartzen duten konfiantza eta ospe korporatiboa hobetzen ditu.

Danobatgroupen komunikazio kanalei buruzko informazio gehiago, txosten honetako **Gobernantza - Komunikazioa eta gardentasuna** atalean.

→ 10

Eranskinak

Eranskinak

1. eranskina: GRI 2-7 Enpleguak

2023	Danobat			Soraluce			Goimek			Ideko			Latz			Zerbitzu Zentralak		
	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA	Gizona	Emakumea	Enpleguak GUZTIRA
Enpleguak guztira, generoaren eta eskualdearen arabera																		
Espainia	404	54	458	252	40	292	92	4	96	85	36	121	20	4	24	27	16	43
GUZTIRA	404	54	458	252	40	292	92	4	96	85	36	121	20	4	24	27	16	43
Enpleguak guztira, generoaren eta adinaren arabera																		
30 urtetik behera	102	16	118	62	6	68	11	0	11	23	14	37	0	0	0	7	4	11
30 eta 50 bitartean	238	29	267	144	26	170	70	3	73	53	19	72	5	2	7	11	9	20
50 baino gehiago	64	9	73	46	8	54	11	1	12	9	3	12	15	2	17	9	3	12
GUZTIRA	404	54	458	252	40	292	92	4	96	85	36	121	20	4	24	27	16	43
Kontratu iraunkorra eta aldi baterakoa, generoaren arabera																		
Iraunkorra	367	37	404	232	20	252	80	12	92	76	9	85	20	4	24	22	5	27
Aldi baterakoa	47	7	54	37	3	40	4	0	4	34	2	36	0	0	0	16	0	16
GUZTIRA	414	44	458	269	23	292	84	12	96	110	11	121	20	4	24	38	5	43
Lanaldi osoa eta lanaldi erdia, generoaren arabera																		
Lanaldi osoa	397	7	404	244	8	252	89	3	92	81	4	85	20	2	22	26	1	27
Lanaldi erdia	50	4	54	34	6	40	4	0	4	35	1	36	0	2	2	13	3	16
GUZTIRA	447	11	458	278	14	292	93	3	96	116	5	121	20	4	25	39	4	43

2. eranskina: GRI 403-9 Lan istripuagatiko lesioak eta GRI 403-10 Laneko gaitzak eta gaixotasunak

	Danobat			Soralue			Goimek			Ideko			Latz		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Lesioak															
Lan istripuagatiko lesioak	1	5	7	10	4	7	2	4	2	0	1	0	1	0	0
Laneko gaitzak eta gaixotasunak															
Lan egindako orduak guztira	601.096	635.466	662394	394.670	441.669	471.117	133.935	134.008	125252.52	177.813	187.577	195.555	31.814	39.066	33485
% ordu estrak	3	3	4	5,3	5	4,3	2,3	2	2.2	0	0	0	0	0	0
Absentismo maila	4,18	4,51	5.7	6,4	4,49	6,08	4,2	5,11	6.6	3,3	2,2	0,8	9,6	2,8	5.7
(Absentismo orduak, lan egindako orduekiko)															
Intzidentzia indizea	2,54	12,32	17.24	39,84	14,76	24,05	23,8	46,51	25.97	0	8,47	0	41,7	0	0
(Baja eragin duten istripuen kopurua 1.000 langileko)															
Maiztasun indizea	1,66	7,87	11.02	25,09	9,06	14,8	15,27	29,26	15.6	0	5,39	0	31,7	0	0
(Lan istripuen kopurua lan egindako milioi orduko)															
Larritasun indizea	0,06	0,22	0.77	0,21	0,27	0,63	0,068	0,174	0.07	0	0,03	0	1,1	0	0
(Galdutako lanaldi kopurua lan egindako mila orduko)															
Laneko gaixotasunen kopurua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

3. eranskina: GRI 404-1 Urteko prestakuntza orduak batez beste langile bakoitzeko

2023	Danobat		Soralue		Goimek		Ideko		Latz		Zerbitzu Zentralak	
	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa	Prestakuntzako ordu kopurua guztira	Batezbestekoa
Prestakuntza orduak batez beste urteko, generoaren arabera												
Gizona	16078,2	39,8	6356,8	25,23	1346,3	14,63	2748,6	32,34	742,5	27,5	295,3	14,77
Emakumea	2612	48,37	514,7	12,87	46	11,5	1855,2	51,53	661	41,31	318,1	16,74
GUZTIRA	18690,2	40,81	6871,5	23,53	1392,3	14,5	4603,8	38,05	1403,5	32,64	638,4	15,57
Prestakuntza orduak batez beste urteko, laneko kategoriaren arabera												
Langilea – Administraria	3474,3	22,71	2781,3	24,83	1067,1	16,42	168,5	168,5	40	20	129,8	25,96
Teknikaria	13855,2	61,58	3490,5	29,83	275,7	13,13	3605,2	43,44	1150	46	279,6	12,71
Arduraduna			250,5	17,89	12	6	-	-	-	-	-	-
Kudeatzailea	1069,6	17,83	308	9,33	-	-	544,8	27,24	197,5	17,95	180	18
Zuzendaria	287,1	15,11	41,2	4,12	37,5	16,88	285,3	47,55	16	5,33	49	12,25
Gerentea	4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste batzuk	18690,2	40,81	6871,5	23,53	1392,3	14,5	4603,8	38,05	1403,5	32,64	-	-
GUZTIRA	9164,6	22,74	5147,1	18,92	1365,6	15,17	2946,3	25,4	638,4	15,57	638,4	15,57

4. eranskina: GRI 405-1 Dibertsitatea gobernu organoetan eta enplegatuetan

2023	Danobat		Soraluce		Goimek		Ideko		Latz		Zerbitzu Zentralak	
	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa	Gobernu organoetako pertsona kopurua	Gobernu organoetako pertsonen ehunekoa
Erakundeko gobernu organoetako pertsonen ehunekoa, generoaren arabera												
Gizona	11	78,57	16	80	13	92,86	11	73,33	9	81,82	14	82,35
Emakumea	3	21,43	4	20	1	7,14	4	26,67	2	18,18	3	17,65
GUZTIRA	14	100	20	100	14	100	15	100	11	100	17	100
Erakundeko gobernu organoetako pertsonen ehunekoa, adin taldearen arabera												
30 urtetik behera	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
30 eta 50 artean	11	78,57	12	60	10	71,43	11	73,33	5	45,45	10	58,82
50 baino gehiago	3	21,43	8	40	4	28,57	4	26,67	6	54,55	7	41,18
GUZTIRA	14	100	20	100	14	100	15	100	11	100	17	100

	Danobat											
Pertsonen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langilea – Administraria	Langile administrariaren ehunekoa	Teknikaria	Teknikariaren ehunekoa	Arduraduna	Arduradunen ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Bestelakoak	Bestelakoen ehunekoa
Gizona	404	88,21	141	92,16	191	84,89	54	90	17	89,47	1	100
Emakumea	54	11,79	12	7,84	34	15,11	6	10	2	10,53	0	0
GUZTIRA	458	100	153	100	225	100	60	100	19	100	1	100
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera												
30 urtetik behera	118	25,76	65	42,48	53	23,56	0	0	0	0	0	0
30 eta 50 bitartean	267	58,3	71	46,41	134	59,56	48	80	13	68,42	1	66,67
50 baino gehiago	73	15,94	17	11,11	38	16,89	12	20	6	31,58	0	33,33
GUZTIRA	458	100	153	100	225	100	60	100	19	100	1	100

	Soraluce													
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langilea – Administraria	Langile administrariaren ehunekoa	Teknikaria	Teknikariaren ehunekoa	Arduraduna	Arduradunen ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Zuzendaria	Zuzendarien ehunekoa	Bestelakoak	Bestelakoen ehunekoa
Gizona	252	86,3	104	92,86	91	77,78	13	92,86	29	87,88	10	90,9	5	100
Emakumea	40	13,7	8	7,14	26	22,22	1	7,14	4	12,12	1	9,1	0	0
GUZTIRA	292	100	112	100	117	100	14	100	33	100	11	100	5	100
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera														
30 urtetik behera	68	23,29	32	28,57	34	29,06	0	0	0	0	0	0	2	40
30 eta 50 bitartean	170	58,22	67	59,82	61	52,14	11	78,57	24	72,73	4	36,36	3	60
50 baino gehiago	54	18,49	13	11,61	22	18,8	3	21,43	9	27,27	7	63,63	0	0
GUZTIRA	292	100	112	100	117	100	14	100	33	100	11	100	5	100

	Goimek													
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langilea – Administraria	Langile - administrarien ehunekoa	Teknikaria	Teknikarien ehunekoa	Arduraduna	Arduradunen ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Zuzendaria	Zuzendarien ehunekoa	Bestelakoak	Bestelakoen ehunekoa
Gizona	92	95,83	65	100	17	80,95	2	100	1	100	5	100	2	100
Emakumea	4	4,17	0	0	4	19,05	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	96	100	65	100	21	100	1	100	1	100	5	100	2	100
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera														
30 urtetik behera	11	11,46	9	13,85	1	4,76	0	0	0	0	0	0	1	50
30 eta 50 bitartean	73	76,04	49	75,38	16	76,19	2	100	1	100	4	75	1	50
50 baino gehiago	12	12,5	7	10,77	4	19,05	0	0	0	0	1	25	0	0
GUZTIRA	96	100	65	100	21	100	1	100	1	100	4	100	2	100

	Ideko											
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langile administraria	Langile administrarien ehunekoa	Teknikaria	Teknikarien ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Zuzendaria	Porcentaje de Director/a	Bestelakoak	Bestelakoen ehunekoa
Gizona	85	70,25	0	0	57	68,67	18	90	5	83,33	5	45,45
Emakumea	36	29,75	1	100	26	31,33	2	10	1	16,67	6	54,55
GUZTIRA	121	100	1	100	83	100	20	100	6	100	11	100
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera												
30 urtetik behera	37	30,58	0	0	33	39,76	0	0	0	0	4	36,36
30 eta 50 bitartean	72	59,5	0	0	47	56,63	13	65	5	83,33	7	63,64
50 baino gehiago	12	9,92	1	100	3	3,61	7	35	1	16,67	0	0
GUZTIRA	121	100	1	100	83	100	20	100	6	100	11	100

	Latz											
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langile administraria	Langile administrarien ehunekoa	Teknikaria	Teknikarien ehunekoa	Arduraduna	Arduradunen ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Zuzendaria	Zuzendarien ehunekoa
Gizona	20	83,33	14	93,33	3	60	1	100	0	0	1	0
Emakumea	4	16,67	1	6,67	2	40	0	0	1	100	0	0
GUZTIRA	24	100	15	100	5	100	1	100	1	100	1	100
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera												
30 urtetik behera	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
30 eta 50 bitartean	7	29,17	4	26,67	3	60	0	0	0	0	0	0
50 baino gehiago	17	70,83	11	73,33	2	40	1	100	1	100	1	100
GUZTIRA	24	100	15	100	5	100	1	100	1	100	1	100

	Zerbitzu Zentralak										
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta generoaren arabera	Enplegatuen kopurua	Enplegatuen ehunekoa	Langile administraria	Langile administrarien ehunekoa	Teknikaria	Teknikarien ehunekoa	Kudeatzailea	Kudeatzaileen ehunekoa	Zuzendaria	Zuzendarien ehunekoa	
Gizona	27	62,79	1	50	15	60	7	63,64	7	100	
Emakumea	16	37,21	1	50	10	40	4	36,36	4	0	
GUZTIRA	43	100	2	100	25	100	11	100	11	100	
Langileen ehunekoa lan kategoriaren eta adin taldearen arabera											
30 urtetik behera	11	25,58	1	0	10	40	0	0	0	0	
30 eta 50 bitartean	20	46,51	1	50	11	44	6	54,55	6	25	
50 baino gehiago	12	27,91	0	50	4	16	5	45,45	5	75	
GUZTIRA	43	100	2	100	25	100	11	100	11	100	

5. eranskina: GRI 401-3 Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena

	Danobat			Soraluce			Goimek			Ideko			Latz			Zerbitzu Zentralak		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatzeko eskubidea izan duten langileen kopurua guztira, generoaren arabera	15	1	16	8	1	9	1	0	1	2	0	2	0	0	0	3	0	3
Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena baliatu duten langileen kopurua guztira, generoaren arabera	15	1	16	8	1	9	1	0	1	2	0	2	0	0	0	3	0	3
Txostenaren xede den aldiari jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren langileen kopurua guztira, generoaren arabera	18	0	18	7	0	7	3	0	3	3	1	4	0	0	0	1	1	2
Jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena amaitu ondoren lanera itzuli diren eta lanera itzuli eta 12 hilabetera enplegatutako izaten jarraitzen zuten langileen kopurua guztira, generoaren arabera	10	0	10	13	2	15	1	1	2	4	1	5	0	0	0	1	0	1
2023an jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko baimena hartu zuten langileen itzulera eta atxikitze tasak, generoaren arabera																		
Lanera itzultze tasa	0,9	0	0,86	1	0	1	1	1	1	1	1	1	0	0	0	1	1	1
Atxikitze tasa	0,83	0	0,83	0,81	1	0,83	1	0	1	0,67	1	0,71	0	0	0	1	0	1

6. eranskina: KSari egotzitako zuzeneko gastuak

	Danobat			Soraluce			Goimek		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023
KSari egotzitako zuzeneko gastuak									
SGAEren mantentze lanak (1)	33.301	35.185	37.620	17.000	20.000	23.173	12.500	9.566	9.500
Ingurumeneko inbertsioak	0	419.143	420.761	0	108.904	492.853	0	0	316.561,5
Hondakin arriskutsuen kudeaketaren kostuak. Hondakin ez-arriskutsuak eta hirikoak	50.095	72.191	70.787	15.700	33.000	36.073	14.375	11.236	12.885,51
Ingurumeneko beste gastu batzuk	23.174	29.030	32.401	7.000	6.000	6.000	3.000	2.500	3.000
GUZTIRA €-TAN	106.570	555.549	561.569	39.700	167.904	558.009	29.875	23.302	341.947

(1) Pertsonen dedikazioa, AENOR eta Legoa auditoretzak

7. eranskina: 306-3 Hondakinak, motaren eta ezabatzeko metodoaren arabera

Danobat				
Hondakin arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Ur oliotsu emulsionatuak	Kg	144.560	176.960	212.360
Kutsatutako ontzi kimikoak	Kg	720	1.040	1.260
Leuntze lohiak	Kg	4.840	5.600	4.702
Hondakin ez-arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Txatarrak	Kg	43.620	61.440	551.640
Enbalajeen hondakinak: Kartoia, plastikoa eta zura	Kg	98.100	143.036	149.960
Sailkatu gabeko hondakin ez-arriskutsuak	Kg	18.580	24.320	20.340
Hirikoekin parekatu daitezkeen hondakinak	Unitatea	2021	2022	2023
Ontzien hondakinak	Kg	2.080	2.520	4.700
Hondakin organikoak	Kg	16.318	14.652	13.194
Goimek				
Hondakin arriskutsuak	Unidad	2021	2022	2023
Ur oliotsu emulsionatuak	Kg	712	4.885	300
Kutsatutako ontzi kimikoak	Kg	3.740	3.985	3.520
Leuntze lohiak	Kg	620	116	395
Taladrina	Kg	20.980	15.580	4.625
Taladrina lohiak	Kg	5.005	5.356	5.865
Hondakin ez-arriskutsuak	Unidad	2021	2022	2023
Txatarrak	Kg	672.500	712.650	659.460
Enbalajeen hondakinak: Kartoia, plastikoa eta zura	Kg	12.150	9.399	8.511
Sailkatu gabeko Hondakin Ez Arriskutsuak	Kg	np	np	np
Hirikoekin parekatu daitezkeen hondakinak	Unidad	2021	2022	2023
Ontzien hondakinak*	Kg	nd	nd	nd
Hondakin organikoak*	Kg	nd	nd	nd

* Ez dago daturik. Ontziak eta hondakin organikoak Mankomunitateko zerbitzu batek kudeatzen ditu.

Soraluce				
Hondakin Arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Ur oliotsu emulsionatuak	Kg	7.720	20.901	11.500
Kutsatutako ontzi kimikoak	Kg	700	1.475	700
Leuntze lohiak	Kg	180	340	110
Hondakin Ez Arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Txatarrak	Kg	24.600	69.092	66.090
Enbalajeen hondakinak: Kartoia, plastikoa eta zura	Kg	28.170	41.760	49.820
Sailkatu gabeko Hondakin Ez Arriskutsuak	Kg	17.190	27.220	25.500
Hirikoekin parekatu daitezkeen hondakinak	Unitatea	2021	2022	2023
Ontzien hondakinak*	Kg	nd	nd	nd
Hondakin organikoak*	Kg	nd	nd	nd

* Ez dago daturik. Ontziak eta hondakin organikoak Mankomunitateko zerbitzu batek kudeatzen ditu.

Ideko				
Hondakin Arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Emulsio oliotsua	kg	1.040	2.040	3.340
Laborategiko errektiboak	kg	1.440	847	1.688
Kutsatutako ontzi kimikoak	kg	60	40	180
Kutsatutako materiala	kg	480	221	102
Hondakin ez-arriskutsuak	Unitatea	2021	2022	2023
Enbalajeen hondakinak: Kartoia, plastikoa eta zura	kg	1.419	1.159	1.678
Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak	Unitatea	2021	2022	2023
Ontzien hondakinak	kg	690	974	1.000

8. eranskina: GRI 303-5 Ur kontsumoa

	Danobat			Soraluce			Goimek			Ideko		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Ur kontsumoa (m ³)												
Ur kontsumoa	1.871	3.943	4.871	3241	3.503	2.165	995	999	1.231	1.205	2.357	1.430

9. eranskina: GRI 302-1 Energia kontsumoa erakunde barruan

	Danobat	Soraluce	Goimek	Ideko
	2021	2021	2021	2021
Energia kontsumoak (kWh) - 2020 eta 2021				
Energia elektrikoa (1)	2.328.238	1.960.000	748.465	2.560.119
Gas naturala (1)	1.732.952	2.238.000	279.183	35.833

	Unitatea	Danobat		Soraluce		Goimek		Ideko	
		2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Energia kontsumoak, 2023									
Berriztagarria									
Sareko Energia Elektrikoa jatorri bermearekin	kWh	1.285.424	0	0	0			795.093	706.908
Instalazio berriztagarri propioetako energia elektrikoa	kWh	13.161	401.242	5.883	415.086			6.193	123.600
		1.298.585	401.242	5.883	415.086	0	0	801.286	830.508
Ez-berriztagarria									
Sareko Energia Elektrikoa jatorri bermerik gabe	kWh	1.141.029	2.596.347	1.866.000	1.518.000	2.343.480	2.622.570	0	0
Gas Naturala	kWh	1.974.661	875.951	1.863.000	1.635.000	426.766	426.498	422.179	403.269

10. eranskina: GRI 301-1 Materialen eta lehengaien kontsumoa

Danobat									
Lehengaien kontsumoa (kg)	2021			2022			2023		
	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira
Lehengaiak (metalak)	111.169	2.111.649	2.222.818	125.437	1.919.355	2.044.792	226.676	2.098.476	2.325.152
Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)	18.175		18.175	25.983		25.983	21.316		21.316
Enbalatzeko materialak	35.119	488.567	523.686	38.468	507.919	546.387	50.365	647.708	698.073
GUZTIRA	164.463	2.600.216	2.764.679	189.888	2.427.274	2.617.162	298.357	2.746.184	3.044.541

Soraluce									
Lehengaien kontsumoa (kg)	2021			2022			2023		
	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira
Lehengaiak (metalak)	1.678	2.628.472	2.630.150	0	3.235.751	3.235.751	0	2.887.341	2.887.341
Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)	16765	0	16.765	19785	0	19.785	20879	0	20.879
Enbalatzeko materialak	57	182257	182.314	21852	220.563	242.415	43817	441959	485.776
GUZTIRA	18.500	2.810.729	2.829.229	41.637	3.456.314	3.497.951	64.696	3.329.300	3.393.996

Goimek									
Lehengaien kontsumoa (kg)	2021			2022			2023		
	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira	Material berriztaezinak	Material berriztagarriak	Guztira
Lehengaiak (metalak)	0	0	0	2.430	0	2.430	10.938	0	10.938
Prozesuko materialak (lubrikatzaileak, errefrigeratzaileak, hozgarriak,...)	22.240	0	22.240	21217	0	21.217	19916	0	19.916
Enbalatzeko materialak	997	1342	2.339	604	2717	3.321	895	6958	7.853
GUZTIRA	23.237	1.342	24.579	24.251	2.717	26.968	31.749	6.958	38.707

**11 eranskina: GRI 305-1 Berotegi efektuko gasen zuzeneko emisioak (1 irismena),
305- 2 Energiari lotutako berotegi efektuko gasen zeharkako emisioak (2 irismena)
eta 305- 3 Energiari lotutako berotegi efektuko gasen zeharkako beste emisioak (3 irismena)**

	Danobat			Soraluce			Ideko		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Emisioak jatorriaren arabera. Karbono aztarna									
1. irismena: Zuzeneko emisioak	437	407,9	183,4	412	897	1.236	-	126,89	86,27
2. irismena: Zeharkako emisioak	11	258,2	687,8	495	496	485	-	0,20	0,36
3. irismena: Zeharkako beste BEG isuriak	ea	264.922,0	236.349,0	ea	114.709	120.353	-	1074,96	1.051,68
CO2 tonen emisioak guztira	448	265.588	237.220	907	116.102	122.074	-	1.202	1.138

* 2022tik: karbono aztarnaren kalkulua ISO140064 eta GHG Protocolen arabera egiten da



www.danobatgroup.com

